

# hiruka

Udako berezia 197. zenbakia  
2023ko uda

URIBE KOSTAKO JAIK

# Jaiak zipriztindu zaitzala!



## IRAILA-URRIA

### MUSIKA



### BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

IRAILAK 2 LARUNBATA 19:00 / 8 €

### HAURRAK



### MAMUT MARKELIÑE

IRAILAK 3 IGANDEA 18:00 / 6 €  
4 urtetik gora

### ANTZERKIA



### ZEOZERTAN DABIL BAINA EZ DAKIT ZERTAN METROKOADRAKOA KOLEKTIBOA

URRIAK 6 OSTIRALA 19:30 / 8 €

### ANTZERKIA



### HONDAMENDIA AXUT! & ARTEDRAMA

URRIAK 13 OSTIRALA 19:30 / 8 €



# hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

**e-posta:** hiruka@hiruka.eus

**Posta-kutxa:** 171

**Telefonoa:** 944 911 337

**Publizitatea:** Maria Gorostiola

**Erredakzioa:** Iker Rincon Moreno, Nahia Martinez Gondra, Hodei Torres eta Ander Zarraga

**Diseinua:** Artefakto

**Kudeaketa eta administrazioa:** Ziortza Merino

**Zenbaki honetako kolaboratzaileak:**  
Joseba Santxo

**Filmazioa eta Inprimategia:** Gertu Inprimategia

**Lege-gordailua:** BI-2022-2014

**ISSN:** 2386-98-95

**Ale-kopurua:** 5.000

**CC-BY-SA**

# Bat egin dezagun jaietan!

**O** hartzerako, uda gainera etorri zaigu, eta, horregaz batera, udalerrri eta auzoetako jaiak ere. Komunitate gisa batzen gaituzten topaketa, ospakizun eta alaitasun uneak dira horiek eta, horregatik, festotan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu; horretarako, urtero egin legez, Urbe Kostak eskainiko dituen hamaika aukerak topatuko dituzu orrialdeotan.

Askotarikoak biziko ditugu datozen asteetan, eta horien isla jaso gura dugu. Ospakizunotan topatuko gaituzu, kamera eskutan, une gogoangarriak gorde guran; hala ere, ditugun mugak tarteko, gure jarraitzaileen argazkiak ikusi eta partekatu gura ditugu, festen mamia harrapatzen duten irudiak, jaietz gozatzeko zortea izan dutenek berriz ere berpiztu ahal izan ditzaten, baina baita horietan parte hartzerik izan ez dutenek esperien-

tzia horiek bizitzeko aukera izan dezaten ere. Une zoriontsu eta partekatuen memoria kolektiboa eraiki gura dugu elkarrengaz; partekatu zure uda!

HIRUKA ez litzateke zu gabe, zure parte-hartzerik gabe eta zure babesik gabe. Gure proiektuaren eta komunitatearen funtsezko atal bat zara. Zure ahotsa, ideiak eta esperientziak baliotsuak eta beharrezkoak dira elkar hazten jarraitzeko.

Beraz, zure zain gaude, ez bakarrik festa giroko kaleetan, baita gure proiektuan ere. Partekatu zure istorioak, iritziak eta kezkak. Elkarrengaz, gure nortasunaz harro sentiaraziko gaituen eta definitzen gaituen aniztasuna eta espiritu komunitarioa islatuko dituen euskarazko arnagune bat eraikitzen jarraitu dezakegu-eta.

**Goza itzazu Urbe Kostako jai hauek alaitasunez, errespetuz eta parte-hartze aktiboz!**

## Erakunde laguntzaileak



# Bizkaia

foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua.





# hiruka d

**Zortzi urte igaro dira 2015 hartan HIRUKA paperezko euskarriaren lehenengo zenbakia argitaratu genuenetik. Ordutik, ia 200 aldizkari argitaratu ditugu, baita milaka eduki digital sareratu ere. Bidean, askotarikoei egin behar izan diegu aurre, baina beti zure ondoan izateko asmoz gogor ekinez.**

## Taldea 2022an

Kazetari bi • Ikus-entzunezko aditu bat • Publizitate-arduraduna • Kudeatzailea • Maketa-sortzailea • Banatzailea • Telefonoa, ordenagailua, sarea, programak, grabagailua, boligrafoak, kamera, mikroa, koadernoak, inpresora, Internet, argindarra, bulegoa, inprenta, gasolina... • Hamaika kolaboratzaile • Bazkideak eta HIRUKAlagunak, gogoz eta ekinez, burutik bihotzeraino, elikagaiz eta diruz, egileak eta bultzatzaileak • Eta zu zeu: barrikotzar, berangoztar, erandioztar, getxotzar, gorlitzar, leioztar, lemoiztar, plentziar, sopeloztar eta urduliztar hori; gure iturria, informazioaren sortzailea, emaila eta kontsumitzailea.

## Aurrekontua

2015ean, eskualdearen, beharren eta egitekoen azterketa egin zen tokiko euskarazko komunikazio-talde bat sortzeko, eta horien arabera aurrekontua 473.000 eurokoa izan zen. Egun, badakigu zifra horietara heltzea ez zaigula posible, egoera ekonomikoak, eskualdearen ezaugarriak, krisiak... hamaika arrazoi tarteko. Egungo errealitatera egokitu behar izan dugu hasierako aurrekontu hori, erdia baino gutxiagora; halere, badugu helburu bat: ereduzko aurrekontu horren erdia gainditzea, 290.000 eurora helduta; hedabideak beharrezkoak dituen baldintzak, baliabideak eta betebeharrak asetzeko adina. Baina, nola lortu hori? Bazkide eta HIRUKAlagun kopuru aproposa lortuta, bezero gehiago erakarrita eta, nola ez, erakunde publikoen diru-laguntza justuak bilatuz.

## Diru-sarrerak

Batetik, sortzaile, bultzatzaile, irakurle eta bertokoen berri euskaraz jasotzea zein garrantzitsua den badakiten HIRUKAbazkideen eta HIRUKAlagunen ekarpenak; bestetik, euren bezeroek HIRUKA irakurtzen dutela ondo dakiten publizitate-jartzaileak; eta, azkenik, euskararen normalizatzeko bidean tokiko euskal komunikabideen jarduna beharrezkoa dela sinesten duten erakundearen diru-laguntzak. Helburua, zu erakartzea eta udaletatik 1-1,5 euro arteko laguntzak jasotzea euskaldun eta ia euskaldun bakoitzeko.

## Gastuak

Lan-orduak, lan-tresnak, inprenta (gora eta gora doana) eta banaketa. 5.000 ale HIRUKA bakoitzeko hilabetearen behin; Uribe Kostako koloreez betetako 2,6 milioi orrialde baino gehiago zure eskura urtean. Ahaztu barik, agerkari digitaleko milaka eta milaka albisteak, bideoak eta argazkiak. Alokairu-gasturik ez dago, Getxoko Udalak leku bat uzten diolako HIRUKari; eskertu beharrekoa. 2022an, HIRUKA hilabetekariaren 12 zenbaki kaleratu genituen. Duinak, kalitatezkoak eta puntakoak; eguneroko ahalegina, zenbakaitza.



# atuetan

2022 dirutan

## Diru-sarrerak

	2022
Getxo	64.601,25 €
Erandio	540 €
Leioa	15.000 €
Berango	3.000 €
Urduliz	1.652,89 €
Plentzia	0 €
Sopela	0 €
Gorliz	4.131,64 €
Barrika	909,09 €
Lemoiz	123,97 €
<b>Udalak guztira</b>	<b>89.958,84 €</b>
Bizkaiko Foru Aldundia	57.000 €
Bazkide eta HIRUKAlagun kuotak	17.664,72 €
Publizitate eta Sustapena	53.716,24 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>218.339,80 €</b>

## Gastuak

	2022
Soldata gordinak eta Gizarte Segurantzza	163.208,71 €
Prestakuntza	861,90 €
Inprenta eta Maketazioa	36.692 €
Correos bidalketa	2.588,12 €
Kolaborazioak	1.100 €
Kanpoko Kontratazioak	12.296,53 €
Harpidetzak	1.482,58 €
Publizitate eta Sustapena	3.066 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>221.295,84 €</b>

## Emaitza

	2022
<b>GALERAK</b>	<b>-2.956,04 €</b>

### Ontzia

Bazkideak, 31; HIRUKAlagunak, 465. Bihozkada eta pentsamendu horiek barik, ezinezkoa! Uribe Kostan euskaldunak eta ia euskaldunak 100.000 lagun baino gehiago gara, eta gora goaz! Bizitzeko taupada eta ideia biziak baditugu, baina erritmoa bizkortu ezean... Talde, elkarte edo lagun uribekostar euskaldun hori, HIRUKAlagun ez bazara, gure ondoan behar zaitugu! Baietz 750 izatera heldu! Zure bila gabiltza! Traineru honetara batuko zara?

### Taldea

Eguneroko, hileko edo noizbehinkako dendari, tabernari eta sustatzaileak; «txikiak» gehienak, guztien arteko garrantzitsuenak, bertokoak. Euren bezero zuzen-zuzenak HIRUKA-irakurleetan zenbatzen dituztenak. Irakurle eta kontsumitzaile, esku artean eta begi aurrean, parez pare. Uribe Kosta ez gura bezain euskaldun batean, balizko publizitate-aukerak itzelak izanda ere, eta krisialdia tartean izan dela, ahaleginak eta bi egin arren, ez dira izan gura bestekoak, ezta behar bestekoak ere oraindino. Ikusi dituzu? Zure bila ere gabiltza.


### Arraunlariak

Uribe Kosta eskualdeko udalak eta Bizkaiko Foru Aldundia. Bakoitzak berea, eta norberak erabakitzen duen ulean: urte hasieran, erdialdean edo amaieran. Udalei, euren herriko euskaldun bakoitzeko 1 euro eskatzen diegu, gutxienez; justua 1,50 euro litzatekeela jakinarazi zaien arren. Aldundiari berak zehaztutako kostu estandarren arabera laguntza eskatzen diogu, urtero, beti ere dagoen diru-poltsaren arabera, eta gainontzeko euskarazko beste hedabideakaz lehian. Azkenengo urteetako zero edo huts batzuk aurreko urteetako zenbateko bihurtzeko lanean dihardugu; batzuek behera egin dute, beste batzuk berreskuratzeko bidean dira, eta baten batek gora egin du. Bizitzeko beharrezko bezain eskertu beharreko jarioak. Horien bila jarraitzera goaz, herritarrek HIRUKA kalean eta sarean izatea merezi duela sinetsita gaudelako.

Arnasestuka ez ibiltzeko, okerrera ez jotzeko eta sasoi bete-betean egoteko, uribekostar euskaldunok gura dugun eta erabakiko dugun komunikabide bat izateko ahalmena edukitzeko, ehuntzen jarraitzeko, hirukoiztea aukeran izateko... gure ondoan gura zaitugu! Egin zaitetz HIRUKAlagun; bihur zaitetz iragarle. **Batera boga egin dezagun aurrera!**



# Uribe Kosta jaietan



Orriotan topatuko dituzun hainbat egitarau behin-behinekoak dira, beraz, kode hau eskaneatuz gero informazioa gaurkotuta izango duzu. Gainera, bertan, herri eta auzoetako jaien informazio gehigarria, argazki-galeriak eta bideoak ere topatuko dituzu.



▶ HIRUKA datuetan.....	5-6
▶ Usategi	
<b>ANSONEKOA (2)</b> .....	51
▶ ALBE agenda	
<b>UDAKO BERTSO-SAIOAK</b> .....	54
▶ HIRUKIRA Olgetan	
<b>UMEEI BEGIRAKO DENBORA-PASAK</b> .....	56-57
▶ Zozketak	
<b>LIBURU-SORTA EDERRA DUGU ZURE ZAIN</b> .....	59

## Herriko jaien egitarauak

▶ Berango	
Uztailak 24-26	
<b>SANTA ANA JAIAK</b> .....	21
Abuztuak 2-6	
<b>SANTO DOMINGO JAIAK</b> .....	35
Abuztuak 6	
<b>BAKAILAO EGUNA</b> .....	35
▶ Erandio	
Uztailak 7-10	
<b>SAN KRISTOBAL JAIAK Goierri</b> .....	9
Uztailak 14-16	
<b>ASUAKO JAIAK</b> .....	13
Abuztuak 14 eta 15	
<b>ANDRAMARIAK Erandiogoikoa</b> .....	36
Abuztuak 9-13	
<b>SAN LORENTZO JAIAK Astrabudua</b> .....	38-39
Abuztuak 24-28	
<b>SAN AGUSTIN JAIAK Altzaga</b> .....	46-47
▶ Getxo	
Uztailak 19-21	
<b>NAZIOARTEKO 38. FOLKLORE JAIALDIA</b> .....	19
Uztailak 21-23	
<b>SANTA ANA JAIAK Areeta</b> .....	20
Uztailak 25	
<b>AIXERROTAKO PAELLA-EGUNA</b> .....	26-27
Uztailak 28-31	
<b>SAN INAZIO JAIAK Algorta</b> .....	28-31
Uztailak 30-abuztuak 6	
<b>ITZUBALTZETA/ROMOKO JAIAK</b> .....	32-34
Abuztuak 10	
<b>SAN LORENTZO AZOKA Algorta</b> .....	40
Abuztuak 11-14	
<b>PORTU ZAHARREKO JAIAK</b> .....	41-43

▶ Gorliz	
Uztailak 7-9	
<b>DASTATUARTE JAIALDIA</b> .....	8
Uztailak 21-26	
<b>SANTIAGO JAIAK</b> .....	24-26
Abuztuak 5-6	
<b>ANDRAMARIAK</b> .....	36
Abuztuak 10	
<b>SAN LORENTZO EGUNA</b> .....	40
Abuztuak 19-20	
<b>UREZARANTZAKO JAIAK</b> .....	45

▶ Leioa	
Uztailak 31 - abuztuak 7	
<b>PINUETAKO JAIAK</b> .....	41-43
Abuztuak 24-27	
<b>SAN BARTOLOME JAIAK</b> .....	45

▶ Lemoiz	
Uztailak 12-16	
<b>KARMEN JAIAK Armintza</b> .....	10-12
Abuztuak 11-19	
<b>ANDRAMARIAK Urizar</b> .....	44

▶ Plentzia	
Uztailak 8-10	
<b>SAN KRISTOBAL JAIAK Txipio</b> .....	9
Uztailak 14-16	
<b>KARMEN JAIAK</b> .....	16
Uztailak 21-22	
<b>MADALENAK</b> .....	16
Uztailak 29	
<b>SARATXAGAKO JAIAK</b> .....	17
Uztailak 31	
<b>SAN INAZIO JAIAK</b> .....	17
Abuztuak 11-12	
<b>AGORRIJAZZ</b> .....	44
Abuztuak 26 - irailak 3	
<b>SAN ANTOLIN JAIAK</b> .....	48-49

▶ Sopela	
Uztailak 13-16	
<b>KARMEN JAIAK Larrabasterra</b> .....	14-15
Uztailak 20	
<b>SANTA MARINA EGUNA</b> .....	18
Uztailak 21	
<b>FOLKLORE BIZIAN JAIALDIA</b> .....	19

▶ Urduliz	
Uztailak 8	
<b>RABU EGUNA</b> .....	8
Uztailak 20 eta 22	
<b>SANTA MARIÑEKO JAIAK</b> .....	18
Irailak 7-24	
<b>ANDRA MARIKO JAIAK</b> .....	52-53



## Gorliz Dastatuarte

# Artea eta janaria uztartuko dute Gorlizen

**Dastatuarte jaialdiko 4. edizioa ospatuko dute aurten Gorlizen, eta, urtero legez, janariaz gain, kulturaz gozatzeko aukera ere izango dute gorliztarrek.**

**A**urtengo jaialdia uztailearen 7, 8 eta 9an izango da, eta, hala, Gorlizko kaleak pintxo beteko dira, baita janari-trukez, postu gastronomiko eta artisauez, tailerrez, antzerkiz, zuzeneko musikaz, dastaketez, erakusketez eta jende guztiarentzako ekintza ugari ere. Aurtengoa 4. edizioa izango da, Gorlizko Udalak antolatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz elkarlanean. Zehazki, udalerriko bost eremutan egingo dituzte ekintzak: Eleiz plazan, San Pedro plazan, Ibarreta plazan, Ondarganan eta Sertutxenan. Jaialdiaren helburua da herria dinamizatzea, gorliztarrek, inguruko bisitariak zein turistak erakartzea, baita egun horietan udalerritik igaroko diren pertsona guztiei kalitatezko proposamen bat eskaintzea ere. Aurtengo edizioko plater nagusietakoa izango da pintxo-lehiaketa: gorliztarrek beste horrenbeste tabernatako hamar bat pintxo dastatu ahal izango dituzte, modu horretan, pintxo-bonua zigilatu eta sarien zozketan parte hartu ahal izango dute. ◀

## Urduliz Rabu Eguna

### Raburik onena nork prestatzen duen erabakitze lehiaketa

**B**este behin ere, Rabu Eguna ospatuko dute Urdulizen uztailearen 8an, zapatuan; hala, rabu-kazolarik onena nork kozinatzen duen erabakiko dute giro herrikoian murgilduta. Goizeko 07:30ean txupina jaurtiko dute jaiei hasiera emateko, eta rabu-lehiaketan parte hartzeko epea 12:45ean bukatuko da. Txapelketako unerik zirrargarriena helduko da 13:30ean, kazolen aurkezpenagaz eta epai mahaiaren xedehartzeagaz, eta, 17:30ean, egunari amaiera emango diote sari banaketagaz eta Burrumba elektrotzarangaren musikagaz. ◀

**Aurtengo edizioko plater nagusietakoa izango da pintxo-lehiaketa: gorliztarrek beste horrenbeste tabernatako hamar bat pintxo dastatu ahal izango dituzte, modu horretan, pintxo-bonua zigilatu eta sarien zozketan parte hartu ahal izango dute.**

### Ordutegia

**Goizeko 07:30ean jaurtiko dute txupina, 12:45ean rabu-lehiaketan parte hartzeko epea bukatuko da eta 13:30ean izango da kazolen aurkezpena.**

## Uztailearen 7tik 9ra

### Uztaileak 7, barikua

- 19:00-23:00** Jomonostruk, Ondarganan.
- 19:00-23:00** Kalejira Disko Festa Sound, Ibarreta plazatik Elizako plazara.
- 20:00** Talo-salmenta, U-Lovers & Mafaldo, Kemekomo Street Food eta Artisau-garagardoa, Elizako plazan.
- 20:00** Kontzertua: PerroLoco, Elizako plazan.
- 22:00** Magia eta mentalismoa, Elizako plazan.

### Uztaileak 8, zapatua

- 11:00-14:00** Dastatuarte murala, Andramari kalean.
- 12:30-23:00** Jomonostruk, Ondarganan.
- 12:30-13:30** Tailerra: ostra-nigiria urdaiazpiko iberikozko bela kurruskariagaz, Ondarganan.
- 12:30-14:30** Tailerra: kanapeak basalandararakaz, San Pedro plazan.
- 12:30-13:30** Tailerra: ostra-nigiria urdaiazpiko iberikozko bela kurruskariagaz, Ondarganan.
- 13:00** Zuzeneko musika, ArteGunea & GastroGunen.
- 13:30-14:30** Zure puzzlea margotu, Ibarreta plazan.
- 18:00** Gaur (ere) fruta, ArteGunea & GastroGunen.
- 18:45-20:00** Gazta-Loreak & Bizkaiko Txakolina, Elizako plazan.
- 19:30-21:00** Magia tailerra, Ondarganan.
- 19:30-21:30** Munduko dantzen ikuskizuna, Ibarreta plazan.
- 19:30-21:30** Versión Acústica Band, San Pedro plazan.

### Uztaileak 9, domeka

- 11:30-12:30** Magiaz betetako ipuinak, Ibarreta plazan.
- 12:00-12:30** Arte tailerra: zapoak margotu, San Pedro plazan.
- 12:00-14:00** Bermuta: janaurreko edari bat baino gehiago, San Pedro plazan.

Dastatuarte  
jaialdiko  
egitaraua osoa





Plentzia San Kristobal jaiak

# Lehenengoak, Txipion

**Uztailean etenik gabeko festen zurrunbiloan sartuko dira plentziarrak, eta aurreneko ospakizunak Txipio auzoko sankristobalak izango dira, uztailaren 8tik 10era.**

**P**lentziako jaien zerrenda luzeari hasiera ematen lehenak Txipio auzokoak izango dira, uztailaren 8tik 10era ospatuko dituzte.

Hasteko, barikuan, *walking football* txapelketa bat egingo dute; izenak adierazten duen bezala, oinez jokatzen den futbol partida da, eta jokalariek debekatuta dute korrika egitea. Horren ostean, domekan eta astelehenean, bai ospatuko dituzte jaiak. Egun handia domeka izango den arren, santuaren egunean ere adin guztietarako moduko jarduerak prestatu dituzte, besteak beste, herri-bazkaria edo zinema. ◀

## Uztailaren 8tik 10era



### Uztailak 8, zapatua

Walking football.

### Uztailak 9, domeka

- 11:00 Txupinaren jaurtitzea.
- 14:30 Herri-bazkaria.
- 17:00 Itxas Eder taldearen dantza-saioa.
- 18:00 Umeentzako tailerrak.
- 21:45 Zezensuzkoa.
- 22:00 Zinema

### Uztailak 10, astelehena

- 11:00 Txupinaren jaurtitzea eta txistulariak auzotik.
- 12:00 Lore-eskaintza eta aureskua.
- 17:00 Banderaren jolasa.
- 20:00 Talo-jana.
- 20:00 Kantagunea.
- 21:30 Zezensuzkoa eta jaien amaiera.

Erandio San Kristobal jaiak

# Goierriin hasiko da jaia

**Erandioko Madalena auzoko jaiak ospatuko dituzte San Kristobal basilizaren inguruan uztailaren 7tik 10era bitartean, udako jaien maratolari hasiera emateko.**

**E**z dira San Ferminak izango, baina Erandion ez dira Iruñeraino joan behariko udan parrandaz parranda aritzeko. Goierriko Madalena auzoko San Kristobal jaiak abiatuko dute udalerriko auzoetako festen maratonia uztailaren 7an; izan ere, esan daiteke aste-akabu guztietan egongo dela ospakizunen bat Erandion.

Hasteko, uztailaren 7tik 10era bitartean hainbat jardueragaz ederto pasatzeko aukera izango dute Goierriko San Kristobal basilizaren inguruan batuko diren erandioztarrek. Azken eguna astelehena izan arren, santuari tartea ere egingo diote. ◀

## Uztailaren 7tik 10era

### Uztailak 7, barikua

- 18:30 Umeen igoera Iberresetik San Kristobalera eta Goierriko jaien hasiera.
- 19:00 XVI. Txinbera Lehiaketa.
- 20:00 Umeentzako herri kirolak.
- 21:00 Burduntzi-pintxo solidarioa.

### Uztailak 8, zapatua

- 17:00 Trikitilariak.
- 18:00 Sokatira Txapelketa.
- 20:00 San Kristobal ermitara kalejira.
- 20:30 Sahieski-jana.
- 00:00 Erromeria eta disko-festa.
- 02:00 Bingoa.

### Uztailak 9, domeka

- 12:30 Meza.



- 13:00 Goialde Dantza Taldearen erakustaldia.
- 15:00 Herri-bazkaria.
- 16:30 Bazkalondoa.
- 18:30 Asto-probak.

### Uztailak 10, astelehena

- 12:00 Meza.
- 12:30 Aureskua eta nagusientzako luntza.

# Musikagaz bat: **Txapel Reggae**



**Armintzara bueltatuko da uztailaren 15ean Txapel Reggae jaialdia, eta, aurtengo edizioarako, askotariko programazioa osatu dute antolatzaileek. Euskal artistez gain, nazioarteko talde andana ere gonbidatu dituzte; hala, reggae musikako musikagile onenen topaleku izango da.**

**A**urtengo Txapel Reggaea 33. edizio-ko lelo nagusia da «herritik herriarentzat», jaialdiko grina herrikoia azpimarratzeko helburuagaz. Hala, nahiz eta antolatzaileek azaldu duten aurtengo kartela «zaila» izan dela osatzea, harro aurkeztu dute euren askotariko programazioa. Izan ere, Erresuma Batuko Claire Angel edota Belgikako Kologne bezalako musikagileak batuko dira uztailaren 15ean Armintzan egingo duten musika hitzorduan.

Urtero legez, Txapel Reggaea Armintzako gune ezberdinetan banatuko da, besteak beste, txosna-gunea, skatepark-a, Dub Corner eta Biobizz Portua Stage eremuetan. Horrenbestez, egunaz gozatzera hurbilduko diren lagun guztiek, kontzertuak bizitzeaz gain, Amaia Sinobasek irakatsitako dancehall ikastaroa bezalako ekintzetan ere parte hartu ahal izango dute aurten. ◀

4

proposamen eskainiko dituzte Dub Corner gunean. **Besteen artean, Stepi Selektah eta lagunak talde euskalduna.**

5

**Euskal Herritik kanpoko artistak ere egongo dira, besteak beste, Claire Angel, Awa Fall, The 3quencies, Kologne, eta Roots Steppers.**

## Uztailak 15, zapatua

- 12:00** Batukada: Batukale Samba, txosnan.
- 12:00** Dancehall ikastaroa: Amaia Sinobas, skatepark-ean.
- 12:30** Diversityenea: Betto Snay eta Marra Junior
- 13:00** Dub Corner: Bomb Bass Hifi Sound, More Jaia DJs., Dr. Baltz eta Stepi Selektah eta lagunak.
- 21:00** Kontzertuak, Biobizz Portua Stage: Claire Angel, Awa Fall, The 3quencies, Kologne, Roots Steppers, Juantxo Skalari, eta Rumbo paraiso.



**Gurtu eta Petx** Txapel Reggaeak antolatzaileak

# «Ikusarazi nahi dugu horrelako jaialdi baten atzean lan handia dagoela»

**Uztailaren 15ean, Txapel Reggaeak Jamaikako musikaz zipriztinduko ditu Armintzako kaleak berriro ere. Alabaina, antolatzaileek boluntarioen falta handia azpimarratu dute aurten.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

**Nola sortu zen jaialdia?** Duela 33 urte sortu zen: herriko jai guztietan bezala kontzertuak egiten zituzten Armintzan, eta 90ko hamarkadan reggae musika hauspotu nahi zuten, Bob Marley-ren garaiaren ostean. Orduan ikusi zuten musika horrek arrakasta zuela, oraindino hemen ez zegoelako hainbesteko reggae mugimendurik. Lehenengo urtean jende asko etorri zen Armintzara, eta horrela jaialdia egiten jarraitu zuten. Momentu batean etenaldi bat egon zen jasagarria ez zela ikusi zutelako, baina 2004an berriro ere egiten hasi ziren, gaur egun arte.

**Zer eskainiko duzue aurtengo edizioan?** Aurtengo kartela ateratzea asko kostatu zaigu, baina edizio honetan aurrekoetan baino aniztasun gehiago dugu. Adibidez, Juantxo Skalari ekarriko dugu, disko berri bat atera duena duela gutxi; baita Erresuma Batuko Clair Angel artista, Rumbo Paraiso edota Awa Foll ere, 2017an egon zena.

**Zein da aurtengo berrikuntzarik azpimarragarriena?** «Herriatik herriarentzat» leloa da aurtengo dinamika berria. Pandemiaren ostean zaila izan da jai eta ekimen ezberdinetako jai-batzordeetan ekintzak eta txosna-txandak betetzea, eta Txapel Reggaeen ere egoera berdinean gaude. Aurten azpimarratu nahi izan duguna da Txapel Reggaea ez dela soilik Armintzako jendearentzako: kanpotik jende asko dator eta badirudi beti herrikoak gaude la estu eta lanean, jai-batzordearekin elkarlanean. Jaietan laguntzeko eta parte hartzeko kontzientzia zabaltzeko ikusarazi nahi dugu horrelako jaialdi bat ez dela bakarrik egiten; atzean lan handia dago. Horregatik, boluntario bila gabiltza: 100 pertsonako kopuru minimo bat ezarri dugu. Gauza errezetarako behar dugu laguntza, esaterako, bi orduetan trafikoa kontrolatzen dituzten arduradunak



Aurtengo Txapel Reggaea jaialdiko 33. edizioa izango da. HOEDEI TORRES

**«Guztioi gustatzen zaigu trago bat hartzea jaietan, eta, horretarako, norbaitek zerbitzatu behar gaitu; beste aldean ere egon beharra dago. Kontziente izan behar gara jai herrikoiak egiteko parte hartu behar dugula»**

behar ditugu. Horrela haiek ere parte hartzeko eta ikusteko jaialdia guztiona dela. Hala, herriatik herriarentzat.

**Zenbat boluntario izan ohi dituzue?** Jai-batzordean zortzi gara, baina Armintzako jendea beti dago laguntzeko prest: herri txikia da eta denok ezagutzen gara gure artean. Esaterako, ikusten bazaituzte pisu handia duen zerbait eramaten, inguruan dagoen edonor hurbilduko da zu laguntzera. Azkenean, bakoitza saiatzen da ahal duen moduan laguntzen. Hala ere, gauza potoloak eta konpromiso serioak hartzeko prest dagoen jendea lortzea gero eta zailagoa da.

**Sarrerarik ez duen jaialdia izanda, nola lortzen duzue ekonomikoki aurrera eramatea?** Ekonomikoki gehien laguntzen dizkiguten gauzak txosnak edota kamisetak dira. Udalak ere laguntzen gaitu, baina gurera bideratzen duten aurrekontua oso txikia da. Beraz, hein handi batean, boluntarioen lanak eramaten du jaialdia aurrera. Kontziente izan behar gara jai herrikoiak egiteko parte hartu behar dugula. Guztiok apur bat eginda, gauza handi bat antolatu dezakegu. ◀

**Lemoiz** Karmen jaiak

# Bueltan dira karmenak!

## Uztailaren 12tik 16ra

### Uztailak 12, eguaztena

- 18:00** Txupinaren jurtiketa eta pregoiaren irakurketa.
- 18:30** Umeen eta helduen triatloia.
- 20:00** Bertso-triki poteoa.
- 21:00** Otarrainxkak, txosnan.

### Uztailak 13, eguena

- 12:00** Umeentzako jolasak.
- 12:00** Jubilatuen hamaiketako (zehazteke) eta tortilla-txapelketa txosnan:  
**13:00-14:00** Izen ematea.  
**15:00-15:30** Tortillen aurkezpena.  
**17:00** Sari-banaketa.
- 17:00** Bits-festa, portuan.
- 18:00** Puzgarriak, frontoi inguruan.
- 18:00** Armintza Paleta Txapelketako finala.
- 20:30** Txitxi-burruntziak, txosnan.
- 21:00** Kontzertua: Entzi eta Otsoa.

### Uztailak 14, barikua

- 12:00** Umeentzako tailerrak.
- 12:00-15:00** Desfilerako izen-ematea, txosnan.
- 13:00** Vermouth lehiaketa, tabernetan zehar.
- 18:00** Pala partiduak, Armintzako frontoian.
- 21:00** Mozorroen desfilea.
- 22:30** Erromeria: Trikizio.

### Uztailak 15, zapatua

- 12:00** Batukale herrian zehar.
- 12:00-13:00** Dancehall ikastaroa, skate pistan.
- 12:30** Hitzaldia, txosnan: SOS Arrazakeria.
- 13:00** Sound Systemak, skate pistan.
- 22:00** Kontzertuak, portuan.

### Uztailak 16, domeka

- Orduak zehazteke** Jubilatuen hamaiketako, Meza eta prozesioa, eta ur-jolasak.
- 20:00** Bingoa txosnan umeentzako eta helduentzako.
- 22:30** Txokolatada eta jaien amaiera.



Uztaileko bigarren hamabostaldian ospatuko dituzte Armintzako jaiak.

**Berriro ere bueltan dira Karmen jaiak Armintzara! Urtero legez, hamaika ekintzakaz osatutako egitaraua egongo da: prest zaude jaietan dena emateko?**

**U**dako momenturik itzarotetsuena heldu da lemoiztar guztientzako: Karmen jaiak! Hala, uztailearen bigarren hamabostaldian, Armintzako kaleak jai-giroaz beteko dira mota guztietako ekintzak eskainiz herritar guztientzako. Uztailearen 12tik 16ra, jai-batzordeak adin-ezberdinei zuzendutako ekimenak antolatu ditu, hala nola triatloia, umeentzako jolasak, mozorro desfilea, eta, nola ez, Txapel Reggae jaialdiaren ospakizuna. Gainera, euskal jaien izaeraren parte diren ekitaldi gastronomikoak ere presente egongo dira inor goseagaz gelditu ez dadin. Izan ere, jaietako lehenengo egunetik, uztailearen 12tik, otarrainxkak eskainiko dituzte txosnan; uztailearen 13an, ohiko tortilla txapelketa ospetsua egingo dute; vermuthik onena nork egingo duen jakiteko lehiaketa ere egingo dute uztailearen 14an; jubilatuentzako hamaiketakoak uztailearen 13an eta 15ean, eta, nola ez, jaietako amaiera emateko txokolate-edana eskainiko dute uztailearen 16an.

Horrenbestez, guztia ez da jana eta edana izango, eta jai guztietan falta ezin den musikaz gozatzeko haimaka aukera ere izango dute Karmen jaiak. Bestek beste, bertso-triki poteoa, Entzi eta Otsoaren kontzertua, Trikizio erromeria, eta Txapel Reggaeoko egitarau osoa izango dira jaietako protagonistak. Azken horretan, urtero legez, herritar guztiek bat egingo dute Jamaikako musikan oinarritutako doinuan. Beraz, dantzaz, musikaz eta herriko jaietz gozatu gura baduzu, ezin dituzu Armintzako karmenak galdu! ◀

Jai-batzordeak aldaketak egin ditzake; gaurkotua, [HIRUKA.eus-en](http://HIRUKA.eus-en)





Erandoi Asuako jaiak

# Aste-akabuko jaiak Asuan



Beranduegi erromeria-taldearen abesti herrikoiek alaituko dute Asuako jaietako lehen gaua. © BERANDUEGI

**Asua ez da ospakizunetatik at geratuko, eta, urtero legez, uztaileko bigarren hamabostaldia Erandioko auzo honi dagokio.**

**A**urten, uztailaren 14tik 16ra bitartean ospatuko dituzte Erandioko auzo honetako festak. Txupina 20:30ean jaurtiko dute eta, sardina-janaren ostean, Beranduegi taldearen erromeria egongo da gozagai gauean.

Hurrengo eguna, zapatua, umeen eta beteranoen futbol partidakaz hasiko da, eta Asuko plazan herri-bazkaria ere egingo dute. Iluntzean, jaiak jarraituko du mariatxiakaz eta Urrats taldearen erromeriagaz. Asuarrek azken unera arte zuketuko dituzte jaiak, uztailaren 26an, herri-bazkaria, bazkalosteko bingoa eta Andoni Oilokiegiren ikuskizuna izango baitituzte, azkenik, txosnetako kupelen hustuketa egin arte. ◀

## Uztailaren 14tik 16ra

### Uztailak 14, barikua

- 19:30** Kalejira eta familientzako olgetan solas.
- 20:30** Txupinaren jaurtiketa eta jaien hasiera.
- 21:00** Sardina-jana.
- 23:00** Beranduegi erromeria eta musika, txosna-gunean.

- 15:00** Herri-bazkaria.
- 18:00** Euskal dantzak.
- 19:30** Umeen marrazki-lehiaketa eta aurpegi-margotzea.
- 20:00** Mariatxiak
- 21:00** Burruntzi-pintxo dastaketa.
- 00:00** Erromeria: Urrats eta musika, txosna-gunean.

### Uztailak 15, zapatua

- 11:00** Umeen futbol-torneoa, Arteagan.
- 12:30** Beteranoen futbol-partidua. Bukatzean, sari-banaketa eta trikitia.
- 14:00** Kalejira Asuko plazara arte.

### Uztailak 16, domeka

- 12:00** Meza. Bukatzean, luntxa, bandak girotuta.
- 15:00** Herri-bazkaria.
- 17:00** Bingoa.
- 18:30** Kontzertua: Andoni Oilokiegi, eta bukatzeko, kupelen hustuketa.

# Hamaika ekintza jaietaz

**Uztailaren 13tik 16ra jai giroa arnastuko da Sopelako kaleetan Karmen jaiak direla eta. Aurten, Munarrikolanda Mendi Taldeak izango du txupinagaz jaiari hasiera emateko ohorea.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

**A**urten 25 urte bete ditu Munarrikolanda Mendi Taldeak, eta, urte honetan, herriarentzako inoiz baino ekintza gehiago egin dituzte mendirteerez gain. Horregatik, klubeko presidente Arantza Lazurtegiak hitz egin dugu taldearen historioaz gehiago jakiteko asmoz.

**Nola sortu zen taldea?** 1998an sortu zen. Bi lagun elkartu —Anton eta Jon— eta konturatu ziren Sopelan ez zegoela mendi talde ofizialik Euskal Mendizaleen Federazioaren barnean. Horregatik, herri-galdeketa bat egin eta proiektua aurkeztu zuten. Oso erantzun positiboa izan zuen, eta jende asko animatu zen parte hartzera; hala, kluba sortu zen. Hori izan zen taldearen hasiera, eta, gaur egun, 250 bazkide ditugu, eta jende asko mugitzen duen elkarte gara.

**Nola aldatu da taldea denbora honetan?** Lehenengo irteerak hurbilen genituen erremuetatik egiten genituen, mendi ezagunenetatik. Gainera, lehen, 10 irteerako egutegia egiten genuen urtean, eta, orain, ordea, 20 irteerakoa. Gainera, Pirinioetan astebeteko irteera bat ere egiteko asmoa dugu aurten. Beraz, 25 urte



Munarrikolanda Mendi Taldeak emango ditu aurten txupinagaz

«Ibilbideak aurretiaz prestatzen ditugu, segurtasuna eta lasaitasuna bermatzeko irteera orotan, eta euskarri sozial bat ere ematen diegu mendia eta natura gustuko duen jendeari»

hauetan uste dut batez ere asko ikasi dugula esperientziaren bidez.

**Nolako garrantzia du mendi taldeak Sopelan?** Sopelako jendeari, baita Uribe Kosta osotik eta Bilbotik etortzen den jendeari ere, gertuko geografia ezagutzeko modu bat eskaintzen diogu. Ibilbideak aurretiaz prestatzen ditugu, segurtasuna eta lasaitasuna bermatzeko irteera orotan, eta euskarri sozial bat ere ematen diegu mendia eta natura gustuko duen jendeari.

For 7 to 12 year-olds

## English Summer Play-School

at

Hamilton Idiomas

at

Nikolas

In July 9:00 - 13:30

Outdoor activities

Plan & Games

Animals English lessons

Information & inscriptions: info@hamiltonidiomas.com / 94 676 3012 / © 663 628 828 https://www.hamiltonidiomas.com

## ARTOLOZAGA ANAIK

# Tallerrak

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

**Sopelan**  
Gatzarrine z/g  
94 676 00 13  
94 676 38 14  
www.talleresartolozaga.com

**Sestaon**  
Miguel Servet, 6  
94 472 13 74

**BOSCH Service**

Car Service

*Jatorrizko bermea mantentzen dugu!*



# gozatzeko



eta pregoia Sopelako Karmen jaietan. © MUNARRIKOLANDA M.T.

**Aurten Sopelako jaietan txupina eta pregoia zuen esku egongo da. Nola sentitzen zarete?** Herrian integratuago sentitzen gara, egia baita urte asko daramatzagula gure jarduerak egiten, baina pixka bat era independentean. Aurten, nolabaiteko ahalegina egin dugu herri osoarentzat gauzak egiteko, hala nola maiatzeko gaueko martxa egin dugu. Oso eskertuta gaude Sopelari hor gaudela ikusarazteagatik. Beraz, gora Munarrikolanda Mendi Taldea eta gora Sopelako jaiak! ◀

## Uztailaren 13tik 16ra

**Sopelako Udalak eta jai-batzordeak Karmen jaietz gozatzeko programazio oparoa osatu dute. Urtero legez, ez da janaria, musika eta giro ona faltako.**

### Uztailak 13, eguna

- 18:30 Parrillada, jubilatuen etxean.
- 19:00 Jaien hasiera Itsas Kalejiragaz, Loiola Ander Deuna kaletik hasita (surflariaren eskulturaren).
- 20:00 Pregoaia eta txupina.
- 20:15 34. Futbito Txapelketaren Finalak, Urkon.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 22:30 Neomak taldearen kontzertua.

### Uztailak 14, barikua

- 13:00 *Y Tan Panchas* ikuskizun komiko musikala.
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 Umeentzako jolas parkea, Urgitxieta plazan.
- 18:00 Tiragoma-txapelketa, Urgitxieta plazan.
- 22:30 STR eta Merina Gris taldeen kontzertuak.

### Uztailak 15, zapatua

- 10:00 Lasterketa nudista, Barinatxe hondartzan.
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 Umeentzako jolas parkea, Urgitxieta plazan.
- 12:30 Sopela Kantari taldearen kalejira.
- 13:00 UK Foto elkarteak antolatutako Sopelako 6. Argazki Rallyaren sari-banaketa. Ondoren, Mexico

Lindo Si Señor mariatxi taldearen emanaldia.

- 14:30 Herri-bazkaria.
- 16:00 Umeentzako tailerrak.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 22:30 Kontzertuak: Bistiwarrior, Beietz eta Trikiizio, Urgitxieta plazan.

### Uztailak 16, domeka

- 10:00 Marmitako-lehiaketa, Urkon.
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 Umeentzako jolas parkea, Urgitxieta plazan.
- 12:00 Meza nagusia Karmengo elizan. Ondoren, Sopelako Lagun Artea abesbatzaren kontzertua eta ohorezko aurrekua.
- 13:00 Barinatxe txistu taldearen kalejira.
- 13:30 *Otempodiz* dantza ikuskizuna, Urgitxieta plazan.
- 16:30 Bitsaren jaia, Urkon.
- 17:00 Guztientzako disko festa, Urkon.
- 18:00 Txitxarrilloa, Iberrota parkean.
- 21:30 AHA zirku garaikideko ikuskizuna, Urgitxieta plazan.

Sopelako  
Karmen jaien  
egitaraua osoa



Kafetegia

**GOXO BREAK**

Ogidenda

• ore amarekin egindako osia  
• gozari bereziak  
• pintxoak

gatzarriñe, 14 A-Lonja, LARRABASTERRA

hiruka

**HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!**

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitetz gugaz harremanetan:

944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

**Ricardo Frances** Plentziako koktelaren jatorria

## «Koktel originalak ez zeraman izozkirik eta Madalena jaietan hartzeko sortu zuten»

ANDER ZARRAGA ▶

**K**oktelaren eguna Plentziako Madalena eta San Antolin jaietako hitzordu garrantzitsuenetako bat da gaur egun. Hiribilduko ospakizun bietan kaleak jendez bete eta goizetik giro ederra sortzen da edari hori dastatzera doan jendetzagaz. Baina zein da koktelaren jatorria, eta, are garrantzitsuago, zeintzuk dira bere osagaiak?

Ricardo Frances plentziarrak ditu galdera horien erantzunak; izan ere, edari hori bere aitak asmatu zuela dio. «Nire aita Cabo San Roque bidaiari-ontziko tabernaria izan zen eta berak koktel asko egiten zituen transatlantiko horretan bidaiatzen zirenentzat». Halaxe hasi du bere izen bera zuen aitaren historia kontatzen. «Dena 1957an hasi zen, nire aita Kasinoan lagun batzuek zegoela: Jose Maria Unibaso, Juan Urbieto, Emilio Ibargurengoitia eta Tomas Laurodagoitia, beste hainbat plentziar ezagun batzuen artean. Ez ziren jaiak ez ezer, baina nire aitak koktel batzuk prestatu zizkien dasta zitzaten. Horietako bat hainbeste gustatu zitzaion, Madalena Egunean hori edango zutela erabaki zutela». Jaietan edari hori hartzeko ohitura hortik hasi zen, beraz.

Ordutik, edari hura jaietan edatea herritarren artean zabaltzen joan zen, eta gaur egun taberna guztietan zerbitzatzen dute Madalena Egunean eta San Antolin jaietan. Hala ere, Francesek dioenez, «hasieran, Madalena Egunean besterik ez zen edaten, baina hori aldatzen joan denez, sanantolinetan ere hartzen da hemen».

**ERREZETA ORIGINALA.** Ricardo Frances aitak bere koktela egiteko osagai hauek erabili zituela kontatu du bere semeak: koktelarako hiru laurden bete bermut, koñak kopa bat, ginebra kopa bat eta arrautza gorringo bat, koktelera izotzagaz ondo bete eta ondo nahasi. «Hori da nire aitak Kasinoan lagunei prestatu zien koktela», azpimarratu du. Gero, edaria zabaltzen joan zenean, Palas Hotelean baini-

Plentziako lehen koktela 1957an egin zuen Ricardo Francesen aitak, Kasinoan zeuden bere lagun batzuentzako. Edari originalak ez zeraman izozkirik, eta Madalena Egunerako sortu zuten edariak bermuta, ginebra, koñaka eta arrautza zeramatzan.

Gaztetan, Plentziako jai nagusiak Madalenak zirela gogoratu du Francesek. Gaur egun, hori aldatu dela dio, San Antolin jaiak protagonismo gehiago hartu baitute; baina horietan ere hartzen dute bere aitak sortu zuen koktelaren ondorengoa.



Ricardo Frances, bere aitak, bere aitak eta berak ere

la izozkia ere erantsi ziotela dio; izan ere, bere aitak sortutako koktela nahiko «lehorra» zela aitortzen du. «Palasekoek izozkia erantsi zioten eta, arrakasta izan zuenez, herriko beste tabernek ere kopiatu egin zioten. Hala ere, gaur egun egiten duten koktela oso ezberdina da, desitxuratu egin da, izozkia eta bestelako osagaiak jartzen baitizkiote. Gainera, kopuru handian egiten dutenez, ezin dute koktelaren banan-banan egin, beraz, emaitza nahiko ezberdina da». Dioenez, nahiago du koktel originala, «orain egiten dutenari izozkia jartzen diotenez, gozoegi geratzen da; agian, bestea, originala, oso fuertea litzateke gazteentzako eta ohituta ez dagoen jendearentzako».

Francesek bere aitak eta horren aurretik bere aitak erabili zuten koktelera ere ekarri du gogora elkarrizketan: «Koktelera honek 100 urte baino gehiago ditu, nire aitaren aitarena izan baitzen. Gero, nik Pauli taberna ere izan nuen eta koktelera bera erabiltzen nuen jaiotako koktelak prestatzeko». ◀





koktelak egiteko erabili duten koketelera eskuetan duela.

## Karmen jaiak



### Uztailak 14, barikua

- 20:00 Txupinaren jaurtitzea.
- 20:00 Sardina-jana.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 22:00 Kontzertua.

### Uztailak 15, zapatua

- 10:00 Marmitako Lehiaketan izen-ematea.
- 12:30 Bertso-poteoa portuko tabernetatik, Pirata bertso-eskolaren eskutik.
- 13:00 Marmiten aurkezpena.
- 14:30 Marmitako Lehiaketaren sari-banaketa.
- 16:00 Arrauna: XV. Karmengo Ama ikurrina. VI. Emilio Laka beteranoen estropada.
- 18:00 Umeentzako tailerrak.

- 20:00 Disko-festa.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 22:30 Kontzertua: 80-90eko hamarkadetako musika.

### Uztailak 16, domeka

- 11:00 Diana eta kalejira.
- 13:00 Karmengo Ama Birjinaren ohorezko meza.
- 16:30 Karmengo Ama Birjinaren jaitsiera, elizatik itsasontzira.
- 17:00 Karmengo Ama Birjinaren Itsas-prozesioa (Eraman zapi zuria Gorlizko ospitaleko jendea agurtzeko).
- 18:00 Karmen Ama Birjinaren omenezko aureskua eta Salbea. Dantza-ekitaldia, Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik.
- 21:00 Erromeria.
- 22:00 Zezensuzkoa.

## Madalena jaiak

### Uztailak 21, barikua

- 18:00 Txupinaren jaurtitzea Madalentukuen eskutik.
- 18:30 Haurrentzako parkea, futbito-zelaian.
- 18:30 Kantujira Madalentukuakaz herrian zehar.
- 21:30 Kontzertua.
- 22:00 Zezensuzkoa, futbito-zelaian.
- 00:30 Djak.

### Uztailak 22, zapatua

- 11:00 Txupinaren jaurtitzea, txistulariakaz.
- 11:30 Madalentxu eta Udalbatzaren

kontzentrazioa Ontziolatik, Eliz enparantzara igotzeko.

- 12:00 Meza Plentziako patroia ohorez eta aureskua.
- 13:30 Musika-bandaren kontzertua, Ontziola plazan.
- 14:30 Madalenetako koktela fanfarreagaz.
- 18:00 Elektrotzaranga, Alde Zaharrean.
- 18:00 Disko-festa, Ontziola plazan.
- 18:30 Arrauna: Plentziako XXXIV. Ikurrina.
- 22:00 Zezensuzkoa, futbito-zelaian
- 22:00 70 eta 80ko hamarkadetako musika, euskaraz.
- 01:00 Erromeria

## Saratxagako jaiak

### Uztailak 29, zapatua

- 12:30 Aire libreko meza.
- 13:00 Aureskua eta luntxa.
- 15:00 Bingo musikatua.

## San Inazio Eguna

### Uztailak 31, domeka

- 11:00 Umeentzako tailerrak.
- 12:00 Eleder magoa
- 13:00 San Inazioaren ohorezko meza.
- 18:00 Dantza-saioa Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik.
- 20:00 Disko-festa.
- 22:00 Zezensuzkoa, Azurtegiplazan.

**Sopela** Santa Marina Eguna

# Berriz ere, ohituragaz bat

**XV. mendeko Santa Marina bazelizara heltzeko mendian gora egin ohi dute sopeloztarrek uztailaren 20an. Eta, aurten ere, ez dute huts egiteko inolako intentziorik.**

**U**rtero legez, uztailaren 20an, eguenean, goizeko 10:00etatik aurrera, Santa Marina Eguneko ohiturakaz jarraituko dute Sopelan: herritarrek 140 eskaile-ra igo behar dituzte Santa Mariñe deitutako basilizara heltzeko, eta bertan santuari ohorezko meza egingo diote. Izan ere, bera omen da haurdun dauden emakumeen zaindaria. Ostean, Fernando Ansoleagaren omenezko plazan, ohorezko aureskua eta lore-eskaintza egingo dute, eta, beranduago, hamaiketakoagaz gozatzeko unea izango dute. Hala, eguna bukatuko dute musikaz alaitutako erromeria eta sari-banaketaz. ◀



**Ekintza andana**  
**Ohitura tradizionalakaz jarraitzeaz gain, herri-bazkaria eta tortilla-lehiaketa bezalako ekintzez ere gozatu ahalgo dute herritarrek.**

## Egitaraua

### Uztailak 20, zapatua

- 10:00** Sopelako udaletxeko plazatik Santa Marina haitzetarako bidea kalejiran egingo dute, Barinatxe txistulari-taldearen doinuek lagunduta.
- 11:00** Santuaren ohorezko meza nagusia, Santa Marina basilizan.
- 11:30** Ohorezko aureskua eta lore-eskaintza Fernando Ansoleaga zenaren omenez.
- 12:00** Hamaiketako trikitiaren musikagaz.
- 14:00** Herri-bazkaria.
- 17:00** Tortilla-lehiaketa.
- 18:00** Erromeria eta sari banaketa.

**Urduliz** Santa Mariñe Eguna

# Menditik dantzaz blai

**Pasa den urtean bezala, aurtengo Santa Mariñe Eguna eguenean egiteaz gain, zapatuan Tortilla Eguna ere ospatuko dute urduliztar guztientzako.**

**J**akina da urduliztarrentzako egun garrantzitsua dela Santa Mariñe jaieguna. Sopeloztarrek bezala, santuarenganako errespetua omentzen dute egun horretan, ekintza herrikoiak bateratuz ohitura tradizionalakaz. Zehazki, aurten, uztailaren 20an eta 22an ospatuko dute. Lehen eguenean, eguenean, basilizara igotzeko prozesioa egingo dute txistulariek lagunduta, eta, urte honetan amak izan direnak omentzeko aureskuren ostean, dantzaldiak egingo dituzte jaitsieran Antsonekoa plazaraino. Zapatuan, aldiz, tortilla-lehiaketa eta kuadrillentzako jolasak egingo dituzte jai giroagaz jarraitzeko asmoz. ◀

## Uztailak 20 eta 22

### Uztailak 20, eguena

- 11:30** Urdulizko Andra Mari elizatik Santa Mariñeko basilizara igoera, udal-agintariakaz eta txistulariek lagunduta.
- 12:00** Meza nagusia.
- 13:00** Azken urtean ama izan diren emakumeen ohorezko aureskua.
- 13:15** Hamaiketako.
- 19:00** Santa Mariñetik jaitsiera Antsonekoa plazaraino buruhandi eta dantza taldeakaz: Iratxo Gorria (Urduliz), Agurra (Algorta), Txikiak (Lamiako).
- 20:30** Txokolate-edana. Ekarri zure edalontzia, ez dituzte emango erabili eta botatzeko edalontzirik.



### Uztailak 22, zapatua

- 12:30-13:30** Tortilla-lehiaketaren izen-ematea.
- 14:00** Tortillen aurkezpena.
- 16:00** Kuadrillen jolasak. Sari berezia irabazleentzat.
- 17:00-20:00** Erromeria Lehian taldeagaz.
- 18:30** Sarien banaketa.



**Getxo** 38. Nazioarteko Folklore Jaialdia

# Tradizioaren ikusgarritasuna Getxora bueltatuko da

**Uztailaren 19tik 23ra bitartean, ohiturazko dantza eta musikaren erakusleihoa izango da Getxo. Jaialdiaren data aurreratu behar izan dute hauteskundeak direla eta.**

**I**ndonesiako Tari Kridabuya Liga, Mexikoko Viva Chihuahua Folklore Konpainia eta Getxoko Itxartu Dantza Taldea izango dira 38. Folklore Jaialdiko protagonistak. Aurten, jaialdia egun bat aurreratu behar izan dute, uztailaren 23an egingo diren hauteskunde orokorretan Muxikebarri zentroa hauteslekuetako bat izango baita. Hala ere, talde gonbidatuak iragarri bezala mantenduko dituzte eta ikuskizun guztiak 20:00etan hasiko dira.

Indonesiako Tari Kirdabudaya Liga izango da 2023ko Getxoko Nazioarteko Folklore jaialdia irekitzeaz arduratuko den taldea. Emanaldian, Indonesiako tradizioen panorama osoa erakutsiko dute, Aceh eskualdetik, Sumatratik, Javatik igaroz. Hurrengo egunean, uztailaren 20an, Mexikoko taldearen



Itxartu Dantza Taldeak itxiko du Nazioarteko 38. Folklore Jaialdia. © ITXARTU

**Sarrerak Kutzabanken, Muxikebarrin eta RKEN daude salgai hiru euroko prezioan. Jaialdi osorako bonoak ere daude salgai, zazpi euroan.**

txanda izango da. Mexikarrek 18 urteko ibilbideak ematen dien bermea daukate eta kalitate handiko ikuskizunak aurkezten dituzte euren emanaldietan.


Bukatzeko, Itxartu taldea izango jaialdia ixteaz arduratuko dena. Asier Bilbao Goitieren zuzendaritzapean, euskal dantzak eta kultura etengabe herritzeko lanetan dabilen taldeak pandemiak gizartean sortu dituen emozioak irudikatuko ditu, Euskal Herriko dantza eta musika tradizionalen bitartez. ◀

**Sopela Folklore Bizian 2023**

## Georgia eta Indonesiako dantzak dakartza Folklore Bizian jaialdiak

**N**azioarteko dantza-taldeen agerlekua izango da Sopela uztailaren 21ean egingo duten 36. Folklore Bizian jaialdian. Egund horretan, nazioarteko dantzariak ekartzen dituen jaialdiaren edizio berri bat egingo du Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldeak. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarrera librea izango da.

Aurten, Georgiako Kolkha Folk Talde Nazionala eta Indonesiako KFT Ragha Sarisha taldeak gonbidatuko dituzte. Beraiez gain, Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldeak ere erakustaldia egingo du egund horretan. Talde galdakoztarrak urtero ekartzen ditu mundu



osoko taldeak, Bizkaiko hainbat udalerritan egiten den Folklore Bizian jaialdirako.

Alde batetik, Indonesiako taldea herrialde horretako 700 talde etnikoen aniztasunaren adierazleetako bat da, eta garai ezberdinetako askotariko dantzak biltzen ditu. Dantzarien jantzi koloretsuek eta mugimendu hipnotikoez ez dute inor axolagabe utziko.

Bestetik, Georgiako Kolkha Talde Nazionalak herrialde kaukasorrekoko dantzarien akrobazia ikusgarriak dakartza bere ikuskizunean. Europa ekialdeko herrialdeko taldea lurralde horietako dantza tradizionalen adierazgarri onenetakoa da gaur gaurkoz. ◀

**Getxo** Santa Anako jaiak**Uztailaren 21etik 23ra****Festaz jantziko da Getxoko Areeta auzoa uztailearen 21etik 23ra bitartean**

**A**urten, Areetako jai-batzordeak hiru eguneko egitaraua prestatu du Santa Ana elizaren inguruko auzuneko jaiak ospatzeko. Uztailearen 21ean, txupinaren eztandak jaien hasiera iragarri bezain pronto, buruhandiak aterako dira kalerik kale harrapatzen dituzten umeak astintzeko. Osteen, sardina-jana egingo dute gaueko musika-ikuskizunerako indarrak berreskuratzeko.

Zapatuan eta domekan hainbat jarduera prestatuko dituzte adin guztietako herritarrentzako. Ez dira faltako ohiko tortilla-txapelketa, kirol-lehiaketak eta askotariko umeentzako ikuskizunak. Egun bietan musika ere egingo da giroa alaitzeko.

**Uztailak 21, barikua**

- 17:00** Puzgarriak.
- 19:00** Txupinaren jaurtitzea eta buruhandiak
- 20:30** Sardina-jana, Marisol arrandegiaren eskutik.
- 22:30** Bingo kantaria.
- 23:00** Musika: Mambo Express.

**Uztailak 22, zapatua**

- 11:00** Puzgarriak.
- 11:00** Hirukoen Saskibaloia Txapelketa.
- 11:00** Xake-txapelketa.
- 13:00** Zirkua.
- 14:00** Tortilla-txapelketa.
- 17:00** Puzgarriak.
- 17:00** Mus-txapelketa.

- 18:00** Igel-toka eta txapel-jaurtiketa txapelketak.
- 19:00** Magia-saioa.
- 20:30** Saiheski-jana, Hermanos Urrutia harategiaren eskutik.
- 22:00** Kontzertua: DJ Bengalitas.

**Uztailak 23, domeka**

- 11:00** Futbol 3 Txapelketa.
- 11:30** Puzgarriak.
- 14:00** Paella-txapelketa.
- 16:30** Ur guda.
- 17:30** Apar-festa.
- 18:30** Herri kirolak.
- 19:30** Sari-banaketa.
- 20:00** Karaokea.
- 23:00** Zinema
- 23:59** Jaien amaiera.

**Berango** Santa Anako jaiak**Jaiez goza**

**Aurreko urteko egun berdinetan ospatuko dituzte festak auzo berangoztarrean: uztailearen 24tik 26ra. Egun horietan, ederto pasatzeko hamaika aukera egingo dira Berangon.**

**A**urten, jaiak santuaren egunean amaituko dituzte, baina horren aurretik, ederto pasatzeko hainbat jarduera izango dituzte berangoztarrek eta bertaratuko direnek. Iaz bezala, aurtengo programazioa uztailearen 24an hasiko da, Merana ikastetxeko Ikasleen Gurasoen Elkarteak urtero antolatzen duen pintura-lehiaketagaz. Horren ostean, tortilla-txapelketa egingo dute goizean zehar.

Jaiak iraungo duten hiru egunetarako, umeentzako beste hainbat jarduera antolatu dituzte, besteak beste, jaietako lehen egunean, tailerrak, jolasak, disko-festa eta altxorren bila izango dituzte. Martitzenean, malabarrak egiten ikasteko aukera izango dute 12:00etatik 14:00etara, eta, arrastian, txikitxoentzako herri kirolak egingo dituzte. Osteen, txokolateagaz asetu ahalko dute euren gosea. Azken egunean, Otxandategi Dantza Taldeko txikitxoek erakustaldia egingo dute santuaren omenezko mezaren ostean.

Musika eskaintzari dagokionez, aurren, Basaki talde leioaztarraren doinu metaleroek irekiko dute eskaintza, 21:00etatik aurrera. Horien ostean, Los Brazos hirukote rockeroak hartuko du txanda. Martitzenean, uztailearen 25ean, arrastian, Si Señor mariatxiek joko dute, 13:00etan. Iluntzean, Fito abeslari famatuaren eta Platero y Tu bere talde ohiaren abestiak gogora ekarriko di-



**GetxoGasos Euskararekin bat!**

**Urteko 365 egunetan gaude zabalik**

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

**JUAN MARI**

Harategia      Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA  
94 464 41 25



# tzeko hamaika aukera



tuen Willson & Willsonetis bertsio-taldearen txanda izango da, 23:30etik aurrera. Horien ostean, festak goizaldera arte jarraituko du disko-festagaz. Azkenik, eguaztenean, Swing Tronics eta Paco DJak itxiko dituzte Berango-ko Santa Anako jaiak, 21:00etatik aurrera.

Jaietako azken egunak herriko nagusien-tzako bereziki antolatutako ekintzak ere izango ditu, hala nola 12:00etako meza, horren osteko hamaiketako eta arrastiko dantzagarriak edo asto-probak. ◀

**Martitzenean Fito & Fitipaldis taldearen bertsioak eskainiko dituzte Willson & Willsonetis taldekoek, 23:30etik aurrera.**

## Uztailaren 24tik 26ra

### Uztailak 24, astelehena

- 12:00 Pintura-lehiaketa, IGEk antolatuta.
- 12:30 Tortilla-txapelketa.
- 13:30 Umeentzako tailerrak eta jolasak.
- 14:00 Tortillen aurkezpena.
- 18:00 Altxorraren bila.
- 19:00 Berango Kantari, Axganetik hasita.
- 19:00 Disko-txiki: DJ Sound-4.
- 19:30 Asto-probak.
- 21:00 Kontzertua: Basaki.
- 23:30 Kontzertua: Los Brazos.
- 01:30-04:30 Disko-festa.

### Uztailak 25, martitzena

- 11:00 Txirrindularitza lasterketa.
- 12:00-14:00 Umeentzako malabarren tailerra.
- 12:00 Umeentzako parkea.
- 13:00 Mariatxiak: Si señor.
- 19:00 Herri Kirolak umeentzat.
- 20:00 Txokolate-jana.
- 23:30 Kontzertua: Willson & Willsonetis, Platero y Tu eta Fitoren tributu-taldea.
- 01:30-04:30 Disko-festa.


### Uztailak 26, eguaztena

- 12:00 Meza.
- 13:00 Hamaiketako eta Otxandategi Dantza taldeko umeen dantzaldia.
- 18:00 Dantzagarriak: Ekhy taldea.
- 19:30 Asto-probak.
- 20:00 Sardina-jana.
- 21:00 Kontzertua: Swing Tronic eta Paco DJ.



**NEBARREBAK  
TABERNA**

Sabino Arana 20, Berango  
ONDO PASA JAIETANI!



**NAGUSIEN  
TABERNA**

Sabino Arana 24, BERANGO



Sabino Arana Kalea, 25 - BERANGO  
Tel. 946 682 604



**Berangoko jai-batzorde berria** Festei izaera herrikoia goa emateko asmoz

# «Badago aukera eta gogoia bestelako jai parte-hartzaileagoak egiteko»

ANDER ZARRAGA ▶

**B**erangon, jai-batzorde berria sortu dute hainbat herritarrek. Diotenez, jai herrikoia euskaldunak eta parte-hartzaileak sustatu gura dituzte, eta hurrengo festak antolatzeko helburua dute.

**Zer dela eta hartu zenuten Berangon jai-batzorde bat eratzeke erabakia?** Duela hamar bat urte desagertu zen aurreko jai-batzordea, eta ordutik Udalak izan du jaiak antolatzeko ardura. Pentsatzen dugu Berangoko jaiak ez direla parte-hartzaileak, horregatik, iaz mugitzen hasi ginen jendearen inplikazioa biltzeko. Gure ustez, jaiak herrikoiak, parte-hartzaileak eta euskaldunak izan beharko lirarteke, baina gaur egungoek ez dute hori kontutan hartzen, jendearentzako programa erakargarri bat egiteaz besterik ez dira arduratzen.

**Beraz, iaz gauzak antolatzen hasi zineten?** Bai, jaiak baino aste bat lehenago batu ginen lauk eta gauza batzuk prestatzen hasi ginen, hala nola bertso-saioa edo eskupilota-txapelketa. Lehen, bakailao-txapelketa ere egiten zen, baina antolatzeari utzi zioten eta Bakailao Eguna egiten hasi zen Udala, guk txapelketa hori berreskuratu genuen iaz. Orduan hasi zen jai-batzordea sortzen; aurten denbora gehiagorekin ibili gara eta jendea animatzeko bilera irekiak egin ditugu. Uste dugu jendea gogotsu dabilela Santa Ana eta Santo Domingo jaiak herrikoia goak defendatzeko.



Taldeak sare sozialetatik zabaltzen ditu bere jarduerak. BERANGOKO JAI-BATZORDEA

## Jai-batzorde herrikoia-aren egitaraua

Egitarau ofizialetik kanpo dauden jarduerak antolatu dituzte Santa Ana eta Santo Domingo jaietan. Jaiak hurbildu ahala horren berri emango dugu [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



**Zuen helburua herriko jaiak antolatzeko izan da, ez?** Bai, guk hurrengo urtera begira espero dugu Udalak guri ardura hori ematea eta aurrekontu bat eduki ahal izatea. Momentuz, Udalak ez digu inolako finantziatorik eman eta euren programan sartu nahi zituzten gure ekintzak. Antolatu ditugun gauzetarako dirua zozketa batetik atera dugu; 1.000 tiket saldu ditugu, eta tabernek ere dirua eman digute gauzak antolatzen joateko.

**Nortzuk osatzen duzue jai-batzorde berria?** Berangoztarrak gara ia guztiok, herritik ezagutzen garen adin guztietako jendea, helburu berak batzen gaituena: jai herrikoia eta parte-hartzaileak antolatzeko. Horregatik, herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu gurera. ◀

**Motabarri**  
Erretegia  
Leioa-Unbe errepidea. 32  
48950 ERANDIO  
944 670 768



**Asier Arruti** Los Urris elkarteko presidentea

# «Kostatzen zait Gorlizko Santiago jaiak imajinatzea Urri izan gabe»

**Gorlizko santiagoetan Los Urris taldekoek berriz ere jantziko dute euren mozorro bereizgarria. Horregatik ezagunak badira ere, hainbat ekintza antolatzen dituen elkarte aktiboa ere bada.**

ANDER ZARRAGA ▶

**T**aldea 1969an sortu zen hainbat gorliztarren ekimenez. «Diotenez, garai horretan jaietan tabernetan ez zegoen orain bezalako musika ozena, beraz, pentsatu zuten kartoizko banda bat egitea», azaldu du Asier Arruti Los Urris taldeko kideak. Horretarako, lehendabizi kartoiz egindako instrumentuak egin zituzten, zarata egiteko turuta bategaz, «eta tabernetatik joaten ziren abesten eta herria girotzen». Taldearen mozorro bereizgarria ere orduan sortu zuten: gona eskoziarra, alkandora zuria, txaleko beltza eta txapela; «etxean zeukaten lehenengoagaz mozorrotu ziren, eta batzuek diote urritasun horretatik etor daitekeela izena, baina ez dago argi».

**ELKARTEA BAINO ASKOZ GEHIAGO.** Arrutik dio 2010ean taldeak urrats garrantzitsu bat eman zuela, Los Urris taldeak elkarte izaera bereganatu baitzuen. «Ordura arte oso zaila zen gauzak antolatzea, ez genuelako jendearen konpromisorik eta asko azken momentuan apuntatzen zirelako jaitsierara eta horrelakoetara». Elkartearen sortzeari esker, Los Urris taldeko kideek elkarlan eta jarduerak antolatzearen konpromiso hori lortu dutela azpimarratu du Arrutik; izan ere, bera presidentea da une honetan, baina tartekatzen doan kargu administratiboa besterik ez dela dio, «bakoitzak bere zereginak eta ardurak ditu, eta denon lanari esker ateratzen ditugu aurrera gauzak».

Beraz, gaur egun, jaietarako mozorrotzen den talde parrandazaleaz gain, herrian jarduerak antolatzen dituen kultur elkarte aktiboa ere bada. «Jaietatik harago, gure artean elkarteak eta besteak ere ondo pasarazteko gauzak antolatzea saria ere bada, lana ematen duen arren». Besteak beste, martxoan Indaba Txapelketa antolatu zuten, Aratz Dantza Taldeagaz batera San Juan sua ere egiten dute



2019ko Santiago jaietan Los Urris taldeak 50. urteurrena ospatu zuten.



**«Parrandan ondo pasatzea gustatzen zaigu, baina gainontzeko gorliztarrek ondo pasa dezaten ere lan egiten dugu; azkenean, hori ere badelako elkartearen helburua»**

**«Urri izatea zer zen planteatzen hasi ginenean, konturatu ginen guk ere herriaren alde lan egin behar genuela gozatzen jarraitu gura baldin baguen»**

**ASIER ARRUTI**  
LOS URRIS ELKARTEKO  
PRESIDENTEA

eta txosnak jartzen hasi zirenean beraiek ere lehenen artean egon ziren 2013an. «Txosnatik ateratzen dugun diruak independentzia ekonomiko bat ematen digu, eta guztiaren % 25a dohaintzan ematen diogu zuzenean Jangai Gorliz eta Plentziako elikagaien bankuari». Diru horri esker, beste elkarte batzuek antolatzen dituzten jarduerak ere babesten dituzte. Adibidez, iaz txakurren lehiaketa bat antolatu zen eta, dirua behar zutenez, laguntza eman zieten; eta Herri Crossean ere pintxoak beraiek jarri zituzten. Horrez gain, jaietan ezaguna da umeentzako antolatzen duten madalena-tailerra.

Hala ere, jaietan mozorroa jantzi eta ondo pasatzeko xedea ez dute alde batera utzi eta jarraitzen dute egiten diren ekintza guztietan parte hartzen saiatzen.

**50. URTEURRENA.** 2019an taldeak mende erdia ospatu zuen eta Urri izandako guztiak gonbidatu zituzten horretara, «100 pertsona inguru batu ginen; oso hunkigarria izan zen», gogoratu du Arrutik. Gaur egun, 40 bat kide direla dio, baina ateak zabalik dituzte eta edonork eman dezake izena, bakarrik eskatzen dutena da elkarteak antolatzen diren jardueretan parte hartzea. «Oraingoz ez dago emakumerik, lehen gizonak bakarrik sartu zitezkeelako, baina orain zabalik gaude eta edonor sar daiteke. Herriaren alde gauzak egin gura dituen jendea gura dugu». ◀

# Jaien erritmora herria da

**Mendibike Elkarteak sortu zuten hiru kideak izango dira aurtengo Gorlizko Santiago jaiari hasiera emango dien pregoia irakurtzeko arduradunak.**

**U**ztailaren 21etik 26ra bitartean Gorlizko jai nagusiak ospatuko dituzte: santiagoak. Sei egunez, herritar guztiek ederto pasatzeko hainbat jardueragaz beteko dituzte Gorlizko kaleak.

Aurten, Goio, Manu eta Pablo izango dira pregoia irakurri eta jaien hasiera iragarriko duen txupina botatzeaz arduratuko direnak. Jai-batzordeak erabaki du beraiek izatea pregoilariak Mendibike Elkartearen sortzaileak izan zirelako, eta, 30 urte beranduago, oraindino horretan jarraitzen dutelako. Hiruek aitortu dutenez, «sorpresa handi bat izan da, eta saririk politena *Mountain Bike*-a bultzatzearen». Era berean, irakurriko duten pregoiaren aurrerapen gisa, mezu bat bidali die te gorliztarrei eta jaietz gozatzera hurbilduko direnei: «Ondo pasatu molestatu gabe, denon artean errespetua nagusi izan behar da, eta, era berean, jarrera txarrak baztertu».

Besteak beste, kuadrillen lehiaketak izango dira festa hauetako pizgarri nagusietako bat. Horieta parte hartzeko, hauek dira jai-batzordeko kideek ezarri dituzten baldintzetako batzuk: gutxienez zazpi partaidek osatutako taldeak izan beharko dira, 12 urtetik gorakoak eta gutxienez nagusi batek lagunduta eta Kapela Egunean talde-argazkia ate-



Jaien hasierako kuadrillek jeitsiera jaietako momenturik bereziena da bat izan ohi da.

**Reincidentes talde ezagunaz gain, urtereoko Gorliz Pine Groove Festival ere egingo dute eta Sua, Oxabi edo Los Cazahuates Mariachi taldeak ere igoko dira Gorlizko oholtzara.**

ra beharko dute eta 688 625 067 telefono-zenbakira bidali WhatsApp bidez. Gainera, kuadrillek derrigorrezko honako bost froga hauek ere egin beharko dituzte: jaitsiera, mo-zorroak, Kapela Eguna, play-back eta igoera.

Lehiaketan parte hartuko duten kuadrillen artean gailentzen denaren izena jaietako azken egunean iragarriko dute, jaien amaiera iragarriko duen Urriaren erretzea baino lehenago. ◀

**TALLER Y TIENDA MULTIMARCA · Tel. 946 774 859 · [www.gorlizbiker.com](http://www.gorlizbiker.com)**  
**Pol. Sagastikoetxe - C/ Artzeta, 15 - GORLIZ · [info@gorlizbiker.com](mailto:info@gorlizbiker.com)**

**EROSKI center Gorliz**  
 Pol. Sagastikoetxe, manzana 1  
 Tel. 946 774 101

**EROSKI city Gorliz**  
 Iberre Zeharbide, 1  
 Tel. 946 774 220

**EROSKI city Plentzia**  
 Areatza, 1 · Tel. 946 774 281



# ntzan jartzeko sei egun

## Uztailaren 21tik 26ra



### Uztailak 21, barikua

- 15:00** Herri-bazkaria, Estratakoetxe parkean. Txartelak kultur etxean.
- 16:30** Joko herrikoia, eliz plazan.
- 19:45** Pregoia eta txupinaren jaurtitzea.
- 20:00** Kuadrillen jaitsiera, Itsasbide kaletik Ondarganaraino.
- 22:00** Zezensuzkoa, eliz plazan.
- 22:30** Gorliz Pine Groove Festival: Novato, Glamity Sound, Bab Sound, Stepi Slektah, La Mía Mari, eliz plazan.
- 23:00** La Principal Orquesta, Ibarreta plazan.

### Uztailak 22, zapatua

- 10:00** XLIII. Bakailao Txapelketa Bizkaierara Saltsan, izen-ematea, Estratakoetxe parkean.
- 11:00** Tortila-txapelketa gazteentzat, 17 urtera arte, Estratakoetxe parkean.
- 11:00** Zezen puzgarriak, eliz plazan eta Itsasbide kalean.
- 11:30** Eskubaloi tailerra, Ibarreta plazan.
- 12:30** Fanfarrea, Elexalden.
- 13:00** Bakailaoen eta tortillen aurkezpenak.
- 19:00** Primo Bayo Diskofesta ibiltaria, Ondarganatik eliz plazara.
- 19:00** XXVII. Habanera & Euskal Polifonia Jaialdia, Ibarreta plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa, eliz plazan.
- 22:30** Kontzertua: Los Cazahuates Mariachi, Ibarreta plazan.
- 23:30** Kontzertua: Reincidentes, eliz plazan.

### Uztailak 23, domeka

- 11:00** XXXVII Artisautza azoka, Artzelu plazan.
- 11:00** Aikido-, boxing-, saskibaloia- eta zumba-erakustaldiak, Elexalden.
- 12:00** Madalena-tailerra Urris taldeagaz, Itsasbide kalea 15ean.
- 12:30** Musika: Ein Go taldea, Elexalden.
- 18:30** Fanfarreak kaleetatik.
- 19:30** XXVI. Mozorro Lehiaketaren desfile, Itsasbide kalean.
- 21:00** Txistorrada, Urris taldeagaz, Ibarreta plazan.
- 21:30** Mozorro Lehiaketaren sari-banaketa, Ibarreta plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa, eliz plazan.
- 22:30** Kontzertua: RocaYRollo, Ibarreta plazan.
- 23:30** Erromeria: Oxabi, eliz plazan.

### Uztailak 24, astelehena

- 11:30** Umeentzako parkea, Itsasbide kalean.
- 12:30** Fanfarrea, Elexalden.
- 13:00** Bits-jai umeentzat Ibarreta plazan.
- 17:00** Umeentzako parkea, Elexalden.
- 17:30** X. Xake lasterketak Artzelu plazan. *Joseteren oroimenez.*
- 19:30** Musika: Golazen, Ibarreta plazan.
- 19:30** Elektrotzaranga.
- 22:00** Voces Navarras, Ondarganatan.
- 22:00** Zezensuzkoa, eliz plazan.
- 22:30** Diskofesta Sound Ibiltaria, Ibarreta plazatik.
- 23:30** kontzertua: Sua, eliz plazan.

### Uztailak 25, martitzena

- 10:30** Nekazaritza azoka, Artzelu plazan.
- 11:00** Txutxu tren: Eliz plaza-Busterrri-Urezarantza-Astondo-eliz plaza.
- 11:30** Herri kirol tailerra ume eta gaztetxoentzat, Elexalden.
- 11:45** Triki-kantu dantza-poteoa, eliz plaza.
- 12:00** Kronoeskalada.
- 12:00** Meza Lirain abesbatzaren emanaldia.
- 12:45** Aureskua, Aratz Taldearen dantzak, eliz plazan.
- 15:00** Herri-bazkaria, San Pedro plazatxoan.
- 15:30** Sagardotegi ibiltaria, San Pedro plazatxoan.
- 18:30** Play Back: 0-6, 7-11, 12-15 urte, Ibarreta plazan.
- 20:30** Play Back 16 urtetik gora, Ibarreta plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa, eliz plazan.
- 22:30** Kontzertuak: Urrats & DJ Kull, eliz plazan.
- 23:00** Musika: *I love 80s*, Ibarreta plazan.

### Uztailak 26, eguaztena

- 11:00** Zezen puzgarrien entzierroa, eliz plazan eta Itsasbide kalean.
- 13:00** Jubilatuentzako luntxa, jubilatuenen.
- 17:00** Rally barregarria eta sariak, Ibarreta plazan.
- 20:00** Bertso-saioa, eliz plazan.
- 22:00** Kuadrillen igoera: fanfarreak, taldeak eta ikuskizuna. Itsasbidetik eliz plazara.
- 22:30** Kuadrilla-lehiaketaren sari-banaketa eta Urria erretzea.



# Paellarik zaporetsuenaren titulua irabazteko lehia iritsi da

**Aurten, getxoztarrek uztailaren 25an ospatuko dute Nazioarteko Paella Lehiaketa. Ohi legez, Itxas Argia Taldeak antolatatu du jaia, Aixerrrotako zelaietan.**

**G**utxi falta da Getxoko paellarik onena zein den erabakiko duen txapelketarako, izan ere, uztailaren 25ean, martitzenean, ospatuko dute aurten lehiaketa. Eta jaia. Hasieran, uztailaren 23an egingo zuten, baina Itxas Argiako Eskarne Unanuek azaldu duenez, egun horretan egingo diren hauteskunde orokorrak direla-eta, data atzeratzea erabaki dute: «Ezin genuen hauteskundearen egun berean egin segurtasunaren aldetik Udaltzaingoa ezingo zelako zelaietara etorri. Gainera, egun horretan, askoz jende gutxiago ere etorri ahalko zen». Hala, daborduko

**Toldoen banaketa**  
**Ohiko parte-hartzaileen artean toloak banatuko dituzte uztailaren 10ean eta 11n; gainerakoak uztailaren 17an zozkatuko dituzte.**

dena prestatzen hasi dira hitzordu handirako. Aurreko urtetik erreserba dutenek, uztailaren 10ean eta 11n eman beharko dute izena toloak jasotzeko; soberan daudenak, uztailaren 17an zozkatuko dituzte. Halaber, gune ofizialeko tutuen muntaketarako laguntza ere eskatuko dute antolatzaileek. Segurtasun neurriei dagokionez, Unanuek adierazi du garrantzitsua dela bonbonaren goma iraungita ez egotea, baita likido sukoiakaz kontuz ibiltzea. Urtero bezala, 100 bat parte hartzaile espero dituzte Aixerrrotako zelaietan, alde «ofizialean».

Paella Txapelketako sariei dagokienez, besteak beste, 60 trofeo banatuko dituzte, eta lehenengo postua irabazten duen taldeak Itxas Argia Taldeko entsalada-ontzia eta txapela jasoko ditu, baita Udalak urtero eskaintzen duen aixerrrotaren figura ere. ◀



**LXVIII NAZIOARTEKO  
PAELLA LEHIAKETA**

**UZTAILAK 25 ASTEARTEA**

*Ondo pasa!*





## Uztailaren 25ean, martitzena

**Goizeko 08:00etatik 09:30era kotxeen sarrera baimenduta egongo da Aixerrrotako zelaietara, parte hartzaileek eguna igarotzeko behar duten material guztia euren txosnara hurbil dezaten. Halaber, 09:30erako landak kotxez libre egon beharko dira.**

**10:30** Nazioarteko Paella Lehiaketarako izen-ematea.

**12:00** Txalaparta-deia, Uktest-en eskutik.

**12:05** Aurreksua.

**12:10** Dantza emanaldia Itxas-Argia dantza taldekoen txikien eskutik.

**13:30-14:30** Paellen aurkezpena.

**17:30** Sari banaketa.

**18:30** Erromeria Urrats taldeagaz.



### BANKA ETA ASEGUURUAK



**Janire Sagarduy Ruiz**  
Bulego-zuzendaria

## Portaera etikoa bermatzen duen zigilua.

**Segurtatuta izan nahi duzuna segurtatzen dizugu guk.**

Zure autoa, etxea, bitzta edo negozioa baino gehiago, gardentasuna segurtatzen dizugu, kontratuetan nahiz komunikazioetan. Pertsona bat zure esanetara egotea, zuk nahi duzun bitartekoan. Eta **EthSI zigiluaren** bidez ziurtatutako gestio etikoa.

**EthSI**  Ethical and Solidarity Based Insurance

Ezagutu gehiago [segurtatzenizugu.com](https://www.segurtatzenizugu.com) helbidean

  
**LAGUN ARO**

  
**LABORAL**  
kutxa

Bada beste modu bat

Aseguru hauen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetako operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Bererian inskribatuta dago. OY-0072 klabearekin. Arrikuaren aseguratzaileak; Seguros Lagun Aro SA eta Seguros Lagun Aro Vida SA. Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Gainerako aseguratzaileak kontsultatu hemen: aseguruak.laboralkutxa.com.

## Uztailaren 28tik 31ra

### Uztailak 28, barikua

- 18:00** Pregoia irakurriko du Kolokili kuadrillak, 2022ko Kuadrilla-Txapelketaren irabazleak, San Nikolas plazan; ikurrinari omenaldia eta txupina botako dute liburutegiko balkoitik.
- 18:30** Kuadrillen jaitsiera, San Nikolas plazatik hasita.
- 20:30** XIX. Jota eta Arin-arin Txapelketa, Kasino plazan.
- 20:30** Zunba herrikoia, txosna-gunean.
- 21:00-23:00** Vynil session Rober Portu Jazz Oi, Katean. Ostein, musika.
- 21:00-03:00** Plater-irekiak, Telletxe plazan.
- 21:00** Kontzertuak Triku tabernan: Coca Danxova eta Aukera Okerra.
- 22:00** Zehensuzkoa, Telletxeko errepidean.
- 22:00** Kontzertuak txosna-gunean: Rebel Noise, Ithaka eta DJ Fetén Señorak.
- 22:00** Kontzertuak Kasinon, DJ Gaua: Ibai Sanchez, Unai Goikolea, Daviz Saenz eta Somervail Music.
- 22:00** Kontzertuak San Nikolas plazan: Pextxel, Mice eta Oki Moki.
- 23:00** Kontzertua Las Barreras tabernan.

### Uztailak 29, zapatua

- 08:30** XXII. Txipiroi Lehiaketaren izen-ematea, Biotz Alai plazan.
- 09:30** Diana, herrian zehar.
- 10:00** Algortagraff 4. edizioa, grafiti-erakustaldia herrian zehar: ume eta gazteentzako tailerra, San Nikolas plazan.
- 11:00-13:30** Ume eta gazteei begirako ekintzak, tailerrak eta puzgarriak, Telletxe plazan. Saharar herriari elkartzatua adierazteko ekitaldia, Palestinako artisautza-erakustaldia eta idazketa-tailerra.
- 10:00-14:00** VIII. Jose Ramon Arrupe Adiskidetasuna Xake Txapelketa, Zabala eskolan.
- 11:30** Gazterdi Txapelketako herri kirolen froga (12-16 urte bitarteko gazteentzako Kuadrilla Txapelketa), San Nikolas plazan.
- 12:00** Txalaparta saioa eta omenaldia, Kasino plazan.
- 12:00** Weepah Sound System, Tellagorri plazan, egun osoan zehar.
- 12:30** Kuadrillen herri kirolak, San Nikolas plazan (Kuadrillen Txapelketako nahitaezko proba).
- 13:00** Bertso-saioa, Kasinon: Imanol Uri, Amets Arzallus, Nerea

Elustondo eta Erika Lagoma.

- 13:00** XXII. Txipiroi Txapelketaren lapikoen aurkezpena, Biotz Alai plazan.
- 14:00** Paella-jan herrikoia, Katea inguruan.
- 14:30** Bazkaria Aftal eta Biladi elkarrekaraz, Zabala eskolan.
- 15:00** Gazte-bazkaria, San Nikolas plazan.
- 16:00** Gazte-ekitaldia, San Nikolas plazan. Ostein, bingo musikatua.
- 16:30** Txikigunea eta umeentzako jolasak, Katea inguruan.
- 17:00-20:30** Algortako San Inazio Jaietako Xake Txapelketa, Zabala eskolan.
- 17:30** Getxoko Estropaden XLV. Ikurriña - JA Agirre Lehendakariaren XIX. Omenaldia.
- 17:30** Buruhandiak, Sarrikobaso kaletik abiatuta.
- 17:30** Txipiroi Txapelketaren sari-banaketa eta giro berezia, Biotz Alai plazan.
- 18:00** Elektroxorongo Elektrotxaranga, herrian zehar.
- 18:30** Ume eta familien jaitsiera, Kasino plazatik abiatuta.
- 19:30** Umeentzako txokolate-jana eta dantzaldia, Biotz Alai plazan.
- 20:00-22:00** Humberto Mariatxia, Katea inguruan.
- 21:00** Weepah Sound System, Telletxe plazan.
- 21:00** Kontzertua Amezti inguruan. Ostein, musika.
- 22:00** Zehensuzkoa, Telletxeko errepidean.
- 22:00** Maketa lehiaketa, txosna-gunean.
- 22:00** Kontzertuak Kasino plazan: Wreck Totem, The Lizards eta Terminal Violence.
- 22:00** Kontzertuak San Nikolas plazan: Nazka, BKTS eta Tronis eta Kiliki Plazagizon.

### Uztailak 30, domeka

- 09:30** Diana, herrian zehar
- 11:00-13:30** Umeentzako jolasak eta tailerrak, Biotz Alai plazan.
- 11:00** Umeentzako moto-lasterketa, Tellagorri plazan.
- 11:30** Gazterdi Txapelketako rally-desafioa (12-16 urte bitarteko gazteentzako Kuadrilla Txapelketa), Telletxe plazan.
- 12:00** Umeentzako ikuskizuna, Tellagorri plazan.
- 12:00** 78. Getxo Zirkuitalia-22. Ricardo Ochoa Memoriala.

Egitarau hau behin-be








94 491 12 71

iratialgorta@gmail.com

Torrene, 2 48991 – ALGORTA



hirigintza • arkitektura • ingenieritza zibila

Basagoiti etor. 69 - 1.solairua ALGORTA

 www.estudiok.es    
  944911332





- 12:30 Zumba Rosigaz, San Nikolas plazan.
- 12:30 Kuadrillen rally-desafioa, Telletxe plazan (Kuadrillen Txapelketako nahitaezko proba).
- 13:00 Kimetz abesbatza, Katea inguruan.
- 13:00 Bertso-saioa, Kasino plazan: Jone Uria, Unai Iturriaga, Eñaut Martikorena eta Oihana Iguaran.
- 13:00 Umeentzako apar-festa, Biotz Alai plazan.
- 15:00 Gazterdi Txapelketa, Getxoko txirrindularitza zirkuituaren animazioa (12-16 urte bitarteko gazteentzako Kuadrilla Txapelketa), Foru kalean.
- 15:00 Gazte eta helduen kuadrillen bazkaria, San Nikolas plazan.
- 17:00 Ume eta gazteen Kantxa Kirol Moda Krossa.
- 18:00 Gazterdi Txapelketa, Kantxa Kirol Moda Krosseko kategoria berezia (12-16 urte bitarteko gazteentzako Kuadrilla Txapelketa).
- 18:00 Nagusien luntxa, Zabala eskolan.
- 18:00 Kontzertua, Katea inguruan.
- 19:00 Herri kirolen erakustaldia (zaku-eroatea), Telletxe plazan.
- 19:00 Nagusien dantzaldia, Trio Menta taldeagaz, Zabala eskolan.
- 19:00 Saninazioetako jaitsiera tradizionala, Lau Bideetatik Ereaga hondartzako barraketaraino. Iristean, txistulariak, trikitilariak eta zezensuzkoa, Isidoren omenez (Kuadrillen Txapelketako proba puntuagarria).
- 20:00 Boxeo gaua, Biotz Alai plazan.
- 21:00-23:00 Talde gazteen kontzertuak, Katea inguruan. Ostein, musika.
- 21.00-01.00 Plater irekiak, Telletxe plazan
- 22:00 Kontzertua Kasino plazan: The Siackers.
- 22:00 Kontzertuak txosnagunean: Ziraun, Emayon erromeria eta DJ Eromena.
- 22:00 Kontzertuak San Nikolas plazan: Xumel, Merina Gris eta Victimias Club.

## Uztailak 31, astelehena

- 09:30 Diana, herrian zehar.
- 11:00-13:30 Umeentzako puzgarriak eta tailerrak, Telletxe plazan.
- 12:00 Dantzari-taldeen kalejira, eta ondoren agerraldia, Biotz Alai plazan.

- 12:00 Meza nagusia eta ohorezko aureskua.
- 12:30 Kuadrillentzako Tortilla Txapelketa irekia uadrillen Txapelketako nahitaezko proba) eta Gazterdi Txapelketako Janari Lehiaketa (12-16 urte bitarteko gazteentzako Kuadrilla Txapelketa), San Nikolas plazan.
- 12:30 Zirku ikuskizuna, Tellagorri plazan.
- 13:00 Bertso-saioa, Kasinon: Maialen Lujanbio, Aitor Sarriegi, Joanes Illarregi eta Onintza Enbeita.
- 13:30 Umeentzako ur-gerra, Telletxe plazan.
- 15:00 Bertso-maratoia Maialen Lujanbio eta Aitor Sarriegigaz, herrian zehar.
- 17:30 Erraldoien eta buruhandien konpartsen bilkura, Kasunen.
- 18:00 Kontzertua, Las Barreras tabernan: Juan Carlos Pichell.
- 18:00 Erraldoien eta buruhandien konpartsen kalejira. Ibilbidea: Kasune, Sarrikobaso, Katea (erraldoien lehenengo dantzaldia), Algortako Etorbidea, Kasino plaza (erraldoien bigarren dantzaldia), Basagoiti Etorbidea, Torrene, Telletxe errepidea (erraldoien hirugarren dantzaldia).
- 18:30 Gazterdi txapelketako erakustaldi-saio irekia, Biotz Alain (12-16 urte bitarteko gazteentzako Kuadrilla Txapelketa).
- 19:30 Kuadrillen erakustaldi-saio irekia, San Nikolas plazan (Kuadrillen Txapelketako nahitaezko proba).
- 20:00 Kontzertua Las Barreras tabernan.
- 20:30 Larrain-dantza, Kasino plazan.
- 22:00 Zezensuzkoa, Xabier Imaz *Pechotero* zenaren omenez, Telletxen.
- 22:00 Kontzertua Kasino plazan: La Mara.
- 22:00 XXII. Zutik Eneko Caballero Futbol Txapelketaren eta Kuadrilla Txapelketaren sari-banaketak, San Nikolas plazan.
- 22:30 Erromeria San Nikolas plazan: Bidean.

## Abuztuak 1, astelehena

- 04:30 Sokasalto txapelketa.



hinekoa da, eta ekitaldi nagusiak hartzen ditu soilik; jaiak hurbildu ahala behin betikoaren berri emango dugu HIRUKA.eus-en

**AZKAYO**  
1980TIK ERAIKUNTZAREN MUNDUAGAZ LOTUTA

Ilusinoz beteta egiten dogu behar gehien atsegin dogun horretan.

**UNAI**  
TABERNA · JATETXEA  
ALGORTA - GETXO

944 661 661  
Algortako Etorbidea, 96

**TRIKU<sup>3</sup> TABERNA**  
Pintxoak eta askoz gehiago!

Ondo pasa jaietan!

**Salsidu Etorbidea · ALGORTA**

**Kolokili kuadrilla** Algortako saninazioetako 2022ko Kuadrillen Txapelketako irabazleak

# «Lehenengo momentutik murgildu ginen jaietan ia

**Pandemiak eragindako urte biko etenaldiaren ondoren, gogo betez heldu zioten Kolokili kuadrillako 35 kideek jaiari: «Denok genuen jaietara itzultzeko eta horietan berriro parte hartzeko gogo». Hala, ekinez eta eginez, kuadrillen jaitsieratik, lehen postuan lortu zuten.**

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: KOLOKILI ▶

**I**azko San Inazio jaietako kuadrilla irabazlea dugu Kolokili, 22 eta 24 urte arteko gazteek osatutako taldea. Diotenez, iazkoa izan zen lehenengo aldia osiera horregaz parte hartzen zutena, eta emaitza agerikoa izan zen, 2022ko Kuadrilla Lehiaketaren garaikurra altxatu baitzuten jaien amaieran.

**Algortako San Inazio jaietako kuadrillen txapelketako garaikurra altxatu zenuten iaz, 2022an. Zelan gogoratzen duzue une hori? Ez genuen inondik inora irabaztea espero. Probak pasatzen eta gure izena taularen goialdean ikusten genituen, eta inork ezin zuen sinetsi. Baina jaiak haur txikien moduan bizi izan genituen une oro.**

**Bi urteko etenaldiaren ostean, gogorra egin zitzaizuen udako-lehiara bueltatzea? Guztiz kontrakoa. Denok genuen jaietara itzultzeko eta horietan berriro parte hartzeko gogo. Lehenengo momentutik ilusioz eta gogo beterik murgildu ginen jaietan. Kuadrilla guztiok edo gehienok genuen itzultzeko gogo handia.**

**Eta zer sentsazio izan zenuten pandemiaren ostean jaietara bueltatu ahal izatea? Erabateko ilusioa genuela esan genezake. Izan ere, etenaldiaren aurretik jai batetik bestera pasatzea arrunta zen, baina bi urte horietan jai bakoitzaren berezitasuna baloratzen eta faltan botatzen da. Hortaz, behin horiek hasi zirela egun eta une bakoitzaz topera gozatzea lortu genuen.**

**Zeintzuk izan ziren 2022ko jaietako proba horiek guztiak irabazteko gakoak? Egia**

esanda, ez dakigu. Jaitsieran postu onean geratu ginela ikusi genuenetik, probak ondo egin nahi izan genituen zortetik ba ote zegoen ikusteko, eta hala gertatu zen. Gakoa proba guztietan ondo pasatzea eta disfrutatzea dela esango genuke. Jakina, proba guztietara aurkeztea eta proba bakoitzean originalak izaten saiatzea garrantzia handia du.

**Aurten, zuei egokituko zaizue pregoia irakurtzea. Zer mezu helarazi gura duzue?** Jaietan pertsona orok duela gozatzeko aukera eta errespetua izan behar dela jaietaz gozatzeko oinarri nagusia. Errespetua lagunei, lagunak ez direnei, antolatzaileei, goizez garbitzera datorren langileari, etab. Horrekin lotuta, ezinbestekoa da eraso eta jarrera xenofoboaren aurrean —eraso matxistak, homofoboak, arrazistak— tinko, arduratsu eta talde bezala jokatzeko: denon erantzukizuna da.

**«Proba guztietara aurkeztea eta proba bakoitzean originalak izaten saiatzea garrantzia handia du irabazi ahal izateko»**





# ilusioz eta gogo beterik

Z»

Horretaz aparte, Getxon urtean zehar jasaten diren zenbait egoeraren aurrean desadostasuna adierazi nahi dugu: alde batetik, gure berdeguneekin eta hainbat auzolagun bizi diren etxeekin amaitu nahi duen HAPOaren legea; bestetik, herrian gazteentzat kontsumotik aparterako eremu-falta salatu nahi dugu, gure egoera soziala eta ditugun beharrianak kontuan hartuz.

**Aurten ere parte hartzeko asmorik baduzue? Eta irabazteko?** Noski! Lan egiten dugunok ere egun libreak eskatu ditugu jaietan egon ahal izateko. Baina irabaztea... Iaz gure planen artean ez bazegoen, aurten askoz gutxiago. Batek daki!

**Zer nabarmenduko zenukete San Inazio jaien inguruan?** Kuadrillen artean dagoen giro ona eta Algortako jai-batzordearen lana. Urtero lortzen den giroa oso garrantzitsua da jai herrikoiak aurrera ateratzeko.

**Kuadrillen Lehiaketako proba guztietatik, zeintzuk nabarmenduko zenituzkete**



## Jaitsiera

«Proba guztietatik jaitsiera nabarmenduko genuke Kuadrillen Lehiaketan, jaietako hasiera eman dien proba delako eta kuadrillak herriko jendearekin harreman zuzena izateko aukera ematen duelako; elkarrekintza hori oso polita da»

**eta zergatik?** Gehientzat, jaitsiera, jaietako hasiera ematen dien proba delako eta kuadrillek herriko jendearekin harreman zuzena izateko aukera ematen duelako; elkarrekintza hori oso polita da.

**Gau ala egunekoak zarete?** Biak. Jaietan ia ez dela lo egiten onartzen da, beraz, egunez zein gaeuz gozaten dugu.

**Zelan baloratzen duzue festak prestatzen dabilen jai-batzordearen lana?** Ezinbestekoa. Jai-batzordeak egiten duen lanak forma ematen die bizitzan ditugun jaietako. Oso eskertuta gaude, haiei esker jaiak aurrera ateratzen dira.

**Prest egongo zinatekete jaiak antolatzeko zeregin horretan laguntzeko?** Bai, ahal dugun heinean laguntzeko prest gaude. Gure ustez, kuadrillen inplikazioa oso garrantzitsua da jaiak aurrera eramanez ahal izateko.

**Txosnak ixteko ordutegia nahikoa dela deritzo?** Ez. Jaiak lau egun baino ez dira, ez da ezer gertatzen musikak ordu bat edo bi gehiago irauteagatik.

**Iaz askotariko eraso matxistak egon ziren, eta ziztadei lottutako mamua ere presente egon zen. Zer uste duzue egin behariko litzatekeela eraso horiei aurre egiteko?** Oso galdera konplexua da. Argi daukaguna da arazoa ez dagoela jai-giroan bakarrik, gizartean dago oinarria; izan ere, zoritxarrez, horrelako ekitaldiak zigortzen ez dituen mundu matxista batean bizitzen jarraitzen dugu.

Nolanahi ere, datozen jaietako begira, funtsezkoa ikusten dugu kuadrillek batez ere argi izatea zein den horrelako jarreraren aurrean jarduteko protokoloa, iaz, adibidez, txosna-gunean alarma piztu zenean, nahasmena izan baitzen. ◀





## Uztailaren 30etik abuztuaren 6ra



### Uztailak 30, domeka

- 08:00 Putxerak, herrian zehar.
- 10:00 Playback-erako diskoen entregatzea, Kalamua kalean.
- 10:00 Eskupilota txapelketa, eskoletako frontoian.
- 10:00 Aritasautza eta nekazal azoka, Kalamua kalean.
- 12:00 Tabernen arteko futbito-txapelketako finala, Gobela kiroldegian.
- 12:00 Poteo animatua.
- 12:15 Pintxo-txapelketa, tabernetan.

### Abuztuak 1, martitzena

- 13:00 Plater irekia, izen-ematea, Cervantes plazan.
- 19:00 Goitibeheren kontzentrazioa, Santa Eugenia plazan.
- 19:30 Goitibeheren kalejira.
- 21:30 Goitibeheren igoera, Txistulariaren aldapan.
- 23:30 Erromeria: Trikidantz taldea, Dolores Ibarruri plazan.

### Abuztuak 2, eguaztena

- 12:00 Poteo animatua.



## XVI. Romoko Herri Krosa

Abuztuaren 3a Agosto  
19:45ean Ganeta Plazan

Izen-ematea / Inscrición:  
17:30 - 19:30 Ganetan

699609588 info@haszten.org

HASZTEN elkarteak laguntza espezializatua emango die dibertsitate funtzionala duten pertsonen. Interesatuak leudekeen pertsonak jar daitezela gurekin harremanetan **gutxienez 3 egun lehenago**.

La Asociación Haszten prestará apoyo especializado a las personas con diversidad funcional que lo soliciten.

Las personas interesadas pueden ponerse en contacto **al menos 3 días antes de la carrera**.



- 12:30 Felix Arnaizi omenaldia, Ibaiondo kalean.
- 13:00 Txosnen irekiera, txosna-gunean.
- 14:30 Herri-bazkaria, txosna-gunean.
- 16:30 Kuadrillen arteko olinpiadak, txosna-gunean.
- 18:00 Walking futbol, Gobela kiroldegian.
- 18:30 Fanfarrea, kalez kale.
- 19:30 Pregoiairen irakurketa eta txupinaren jaurtiketa, Santa Eugenia plazan.
- 19:45 Kalejira.
- 20:30 Dantzen alardea, Zasi Eskolagaz, txosna-gunean.
- 22:00 Las Fellini, Ganetan.
- 23:30 DJ Bengalitas, txosna-gunean.

### Abuztuak 3, eguena

- 11:30 Txikigunea, Santa Eugenia plazan.
- 12:00 Trikitilariak, kalez kale.
- 15:00 Elkartasun bazkaria, txosna-gunean.
- 16:00 Bertso-saioa, txosna-gunean. Bertsolariak: Paule Loizaga, Jone Uria, Andoni Egaña eta Sustrai Colina. Gai-jartzailea: Peru Vidal.
- 17:30 Txikigunea, Santa Eugenia plazan.
- 19:00 XVI. Herri Crosa, Ganetan.
- 19:30 Banda de Cartón, kalez kale.
- 22:00 Kontzertuak: Guda Dantza eta Manifa, txosna-gunean.
- 22:30-23:30 Zezensuzkoa, lekua zehazteke.

### Abuztuak 4, barikua

- 11:30 Txikigunea, Santa Eugenia plazan.
- 12:00 Txistulariak, kalez kale.
- 13:30 Mosto Rallya, txosna-gunea.
- 14:00 Erretiratuen bazkaria, eskolako frontoian.
- 17:00 55. Rally Poteoa, txosna-gunean.
- 17:30 Txikigunea, Santa Eugenia plazan.
- 19:00 Herri kirolak, Maiatzaren Bata kalean.

- 22:00 Playback-a, Dolores Ibarruri plazan.
- 22:00 Kontzertuak: La Tokokera eta La Topadora, txosna-gunean.

### Abuztuak 5, zapatua

- 11:00 Zelai errea, Santa Eugenia plazan.
- 12:00-15:00 Trikitilariak, kalez kale.
- 12:00 Haurrentzako bizikleta eta motorren ginkana, Gobelaurre kalean.
- 12:00 Aerobik-a, Santa Eugenia plazan.
- 13:00 Kantujira.
- 15:00 Etxe Merkel Eguna, etxe merkeetan.
- 17:00 Mus Txapelketa ofiziala, Ondategi kalean.
- 18:30 Ezusteko froga: Itzubaltzeta. Lekua zehazteke.
- 19:00 Bertsojira, kalez kale.
- 20:00 Txitxarrillo: Trio Menta, Ganetan.
- 20:30 Boxeo Bunk3r, txosna-gunean.
- 21:00 Musika urbanoa, Dolores Ibarruri plazan
- 22:00 Zezensuzkoa, herrian zehar.
- 22:00 Romo Reaggae Festival, txosna-gunea.

### Abuztuak 6, domeka

- 06:00 Alpargata pertsonaien elkarretaratzea, txosna-gunean.
- 07:00 Tanga lasterketa, txosna-gunean.
- 07:00 Txapen lasterketa, txosna-gunean.
- 08:00 Diana, herrian zehar.
- 12:00 Tortilla-txapelketa.
- 16:00 Dantza plaza, Zasi Eskolagaz, Gobelondo kalean.
- 18:30 Bilbainadak: Los Cinco Bilbainos, txosna-gunean.
- 19:00 Buruhandiak eta erraldoiak, elizatik hasita.
- 19:30 Sardina-jana, txosna-gunean.
- 21:30 Sarien banaketa, txosna-gunean.
- 23:30 «Pobre de mi», txosna-gunetik hasita, kalez kale.
- 23:55 Jaien amaierako traka, Ganetako zubian.



Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala behin betikoaren berri emango dugu HIRUKA.eus-en

DESAYUNOS ESPECIALES - PINTXOS  
**Goikoa**  
Berria  
- BOKATAS - RACIONES - SOXOS

C/SantaEugenia nº1, ROMO  
+34 946304979

**GORA ROMO!**

EGUAZTENA 2 MIÉRCOLES  
21:00h Kontzertua:  
KASPA DS RATA

EGUENA 3 JUEVES  
18:00h: FUTBOLIN TXAPELKETA  
21:00h Kontzertua:  
TXELU'S BAND

**ARANTZA  
ETXEBARRIA**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra	Periodontzia
Ortodontzia	PADI

© 944 307 696  
Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA

**Ikusi Makusi** Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako 2022ko jaietako kuadrilla irabazlea

# «Itzubaltzetako jaiak herritik eta herriarentzat dira, oso bereziak»

IKER RINCON MORENO ▶

**I**tzubaltzeta/Romoko jaietan parte hartzen hasi zirela 10 urte beteko dutela gogoratu dute Ikusi Makusi kuadrillakoek. 25 eta 27 urte arteko gazteok iaz irabazi zuten haien auzoko jaien Kuadrillen Txapelketa, «inondik inora» espero ez zuten arren. Aurten, azken hamarkada honetan bezala, jarduera guztietan parte hartuko dutela iragarri dute.

**2022an, Kuadrilla Txapelketaren garaikurra altxatu zenuten. Zelan bizi zenuten momentu hori?** Harriduraz, baina poztasunez. Urtero, jaiak prestatzen hasten garen momentuan, uztailean, irabaztea ez da gure buruetatik pasatzen den helburuetako bat; kuadrillan elkartzeko eta gozatzeko hartzen dugu. Iaz, gainera, inoiz baino beranduago hasi ginen prestaketarekin eta, ondorioz, nahiko arin sortu behar izan genuen probetarako materiala. Nolanahi ere, oso eskertuta jaso genuen berria, uste dugulako gure inplikazioa eta jarrera aktibo eta parte hartzailea saritzeko modu bat dela.

**Espero zenuten garaitzea?** Inondik inora, izatez, rankingak gora egiten zuen heinean, gutaz ahazten zeudela pentsatu genuen.

**Zaila izan zen txapelketa horretako probak gainditzea?** Bueno... ezetz esango genuke, urtero froga berdina egiten direlako eta horietan sormena eta irudimena lantzen dugu modu inprobisatu batean. Dena den, aipatu beharra dugu gure ahulgune nagusia play-backa izaten dela, ez dagoelako inprobisatzeko tarterik.

**Zein da gehien eta gutxien gustatzen zaiuzena?** Gehien gustatzen zaigun froga goitibeheren kalejira da, jaiari hasiera eman eta kuadrilla guztiekin elkartzeko une ezin hobea delako, eta herrian giro itzela sortzen da. Gutxien gustatu baino, gehien kostatzen zaiuna play-back frogak da, buruari mila buelta emateko momentua izaten delako.

**Zergatik parte hartzen duzue Kuadrilla Txapelketan?** Jaiak beste modu batean bizitzeko eta herriko giroan murgiltzeko unea delako, herriko izaera eta nortasuna garatzeko momentua. Denok helburu berberarekin bat egi-



Ikusi Makusi kuadrillako kideak. IKUSI MAKUSI KUADRILLA



**«Momentuaren arabera ez gara kontziente gaua edo eguna den. Asko gozaten ditugu eguneko planak, baina modu berean, gauean txosnagunean sortzen den giroa gaindiezina da»**

**«Abestiak dion moduan: adina gorabehera, hemen dugu aukera, oihukatu batera Erromo aurrera!»**

ten dugulako: errespetuz jaietz gozatzea, eta herri-izaera sustatuz.

**Aurten ere parte hartzeko asmoa duzue?** Bai, dena den, urteak pasata, gero eta zailagoa egiten zaigu prestaketa lanak egiteko koordinatzea. Hala ere, elkarrekin egoteko aukera lehenesten dugu eta ezinezkoa egiten zaigu guretzat hain bereziak diren jaietan ez parte hartzea. Halaber, aurten inoiz baino gogotsu eta motibatuago gaude, lehenengo hamarkada ospatuko baitugu!

**Zer mezu helarazi gura zeniekete aurten jaietara hurbilduko diren horiei guztiei?** Herriko jaiak ondo pasatzeko, errespetuz gozatzeko eta hainbat borroka aldarrikatzeko antolatzen direla. Hori dela eta, besteekiko errespetuzko jarrera ezinbestekoa da. Izatez, argi adierazi nahi dugu herrian ez dugula inolako erasorik onartuko. Aurreko urtean hainbat egoera desatsegin eta nazkagarri bizi izan genituen emakumeok, eta aprobetxatu nahiko genuke Kresala Gazte Talde Feministari eskerrak emateko, eurak izan baitira emakume eta neska gazteon artean elkartasuna sortu eta ahizpatasun sarea ehundu dutenak, emakumeon eta neska gazteon ongizate fisiko eta emozionala berma dadin.

**Zerk egiten ditu berezi, zuen ustez, Itzubaltzeta/Romoko jaiak?** Herriko jendeak, eragile eta jaietako parte hartzaile desberdinen bitartez, herriari ematen dion alaitasuna. Kuadrilla desberdinen elkartasuna, laguntzeko antolakuntza, jaiak hasi aurretiko prestakuntza, integrazioa... ◀



Berango Santo Domingo jaiak eta Bakailao Eguna

# Bakailao Egunagaz itxiko dituzte Berangoko jaiak



**Abuztuaren 2tik aurrera, lau egun izango dituzte berangoztarrek udalerriko jaietz gozatzeko. Azken eguna, abuztuaren 6a, bakailaoari dedikatuko diote.**

**U**ztaileko Santa Ana jaien ostean, Berangoko jai nagusien txanda izango da abuztuaren 2tik 6ra bitartean. Aurtengo egitarauak aurreko urtekoak baino egun bat gehiago izango du eta bost egunean zehar ospatuko dituzte jaiak. Lehen eguna kuadrillena izango da, abuztuaren 2an, eta bazkaria eta erromeria izango dituzte gozagai motorrak berotzen hasteko. Hortik aurrera, Berangoko Udalak beste hainbat ekintza antolatuko ditu Santo Domingo elizaren inguruan adin guztietako herritarrek ederto pasatzeko aukera izan dezaten. Besteak beste, Urrats erromeria, Modus Operandi edo El 28 LOVG – La Oreja de Van Gogh taldeari tributua— musika-taldeen kontzertuak egongo dira, eta umeentzako parkeak eta dantza erakustaldiak ere egingo dituzte, beste askoren artean.

Abuztuaren 6an, urteroko Bakailao Eguna egingo dute. Egun horretako lehiaketa egiteari utzi zioten arren, sortu berri den Berangoko jai-batzordeak txapelketa berreskuratzeko asmoa iragarri du aurtent. ◀

## Abuztuaren 2tik 6ra

### Abuztuak 2, eguaztena

**Kuadrillen eguna**  
Egunean zehar Bazkaria eta erromeria: Bidean eta Jaikide.

### Abuztuak 3, eguena

**12:00-20:00** Zurezko jolasak.  
**13:00-14:00** Apar-festa.  
**17:30** Sputnik familiarra, adin guztientzako eskalada.  
**19:00** Bilbainadak: Bilbotarrak.  
**21:00** Hanburgesa-jana.  
**23:30** Erromeria: Urrats.

### Abuztuak 4, barikua

**12:00** Meza.  
**13:00** Hamaiketako aitite eta amamentzat, Otxandategi Dantza Taldeko umeen eskutik.  
**17:00-20:00** Gazte-parkea, Berango-Merana ikastetxean.  
**18:30** Antzerki-familiarra, birziklatzeari buruzkoa: *Traka Matraka*.  
**19:00** Pelota.  
**19:30** Txokolate-edana.  
**20:00** Otxandategi Dantza Taldea.  
**23:30** Kontzertua: Modus Operandi.  
**01:30-04:30** Diskofesta.

### Abuztuak 5, zapatua

**11:00** Binakako VIII. Pala Txapelketa.  
**12:00-14:00** Haur-parkea, Berango-Merana ikastetxean.  
**12:30** Berango Kantari, irteera Elexaldetik, eta ondoren, bazkaria.  
**13:00** Leioako musika banda.  
**17:00-20:00** Haur-parkea, Berango-Merana ikastetxean.  
**18:00** Bingo musikatua.  
**19:00** Txitxarrilloa, Galea.  
**20:00** Idi probak.  
**23:30** Kontzertua: El 28 LOVG, La Oreja de Van Gogh taldeari tributua.  
**01:30-04:30** DJ.

### Abuztuak 6, domeka

#### Bakailao Eguna

**11:00-14:00** Ur parkea.  
**12:00** Herri kirolen erakustaldia.  
**16:00-18:00** Ur parkea.  
**18:00-21:00** 60tik 90ko hamarkadetarako musika.

**Gorliz** Andra Mari jaiak

# Badatoz Gorlizko paellak!

**Santiagoetako ajetik berreskuratuta, gorliztarrak Agirre Andra Mariren ermitaren inguruko landetan batuko dira hiru eguneko festak ospatzeko.**

**A**buztuko lehen aste-akabuan festak ospatuko dituzte Gorlizen ere. Oraingoan, Agirre Andra Mari baselizaren inguruetan batuko dira festa ospatzeko. Horietan, hainbat jarduera egingo dituzte, baina seguruenik LXI. Paella Txapelketa izango da jende gehien erakarriko duena. Abuztuaren 6an, kuadrillek euren karpak jarriko dituzte eta arrozik gozoena prestatzeko gai nor den frogatuko dute.

Baina hori azken egunean izango da; horren aurretik, zapatuan, besteak beste, herri krosa eta tortilla-txapelketa ere egingo dituzte. ◀

## Abuztuaren 4tik 6ra

### Abuztuak 4, barikua

- 17:00** Txupinaren jaurtitzea eta kalejira.
- 18:00** Xilipurdi Antzerki Konpainiaren antzerkia: *Pepa eta Kutxo pailazokeriak*.
- 20:30** Kontzertua: Petit Comité.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 23:00** Kontzertua: Lehian.

### Abuztuak 5, zapatua

- 10:00** XXXIV. Herri Krosa.
- 11:00** Meza Agirre Andra Mariren ohorez.
- 11:30** XLVIII. Tortilla Txapelketa.
- 11:45** Ohorezko aureskua, eta Aratz Dantza Taldearen dantzaldia.
- 12:00** Trikitilariak.
- 12:00** Umeen ur-parkea.
- 12:45** Luntxa ermitaren atarian

jubilatuentzat.

- 13:00** Tortillen aurkezpena epaileek dastatzeko. Jarraian, sari-banaketa.
- 17:00** Umeen ur parkea.
- 18:00** Herri kirolak.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 22:30** Ikuskizuna: *Space Jam*.
- 00:30** *A+B show partie*.

### Abuztuak 6, domeka

- 11:00** LXI. Paella Txapelketarako izen-ematea, kioskoan.
- 13:00** Paellen aurkezpena, landaren erdialdean.
- 18:00** Paellen sari-banaketa.
- 19:30** Animazioa: Zerbi Dantza Disko Show.
- 22:00** Zezensuzkoa eta aurtengo jaien amaiera.

**Erandio** Andra Mari jaiak

# Festa ez dadila eten

**Erandion, Goiherriko sankristobalen ostean, Erandiogoikoko andramariak hartuko dute txanda auzoko bigarren festak ospatzeko, abuztuaren 14 eta 15ean.**

**E**randiogoikoko andramariak ez dira Gorpuzti jaiak bezain famatuak izango, baina ziur goikoatarraren giroak ez duela hutsik egingo. Lehen egunean, abuztuaren 14an, arrastian motorrak berotzen hasiko dira eta, hurrengo eguna jaieguna denez, seguru bat baino gehiago berandura arte geratuko dela erromeriako eta osteko Djaren giroan murgilduta.

Bigarren egunean, paella-lehiaketa egingo dute, jaiotako ezinbesteko hitzordua. Bazkalosteko logaleak ez harrapatzeko umeen disko-festa eta kuadrillentzako jolasak egongo dira arrastian. ◀

## Abuztuak 14 eta 15



### Abuztuak 14, astelehena

**Umeentzako puzgarriak arrastian zehar.**

- 19:00** Trikipoteoa tabernetatik.
- 21:30** Burruntzi dastaketa.
- 23:30** Erromeria eta Dj.

### Abuztuak 15, martitena

**Umeentzako puzgarriak arrastian zehar.**

- 11:00** Paella-lehiaketarako arroz-banaketa.
- 13:00** Goi-Alde Dantza Taldearen dantza erakustaldia.
- 14:00** Paellen aurkezpena.
- 16:00** Umeen disko-festa.
- 18:00** Paella-lehiaketaren sari-banaketa.
- 18:30** Kuadrillen arteko jolasak eta kupelaren hustuketa.



# KULTURA AUZOETAN CULTURA EN LOS BARRIOS

# LEIOA



**UZTAILAK 10 JULIO**  
San Bartolome (elizaren plaza) // 18:00

**CIRCANELO**  
Fredy & Cía (Galizia)



**UZTAILAK 11 JULIO**  
Juan de Ajuriagerra plaza // 18:00

**FORZU2**  
Zirko Txosko (Galizia/Euskadi)



**UZTAILAK 12 JULIO**  
Manuel de Irujo plaza // 18:00

**FORZU2**  
Zirko Txosko (Galizia/Euskadi)



**UZTAILAK 13 JULIO**  
Dolores Ibarruri plaza // 18:00

**ILUSIÓN ILUSIOA**  
Ortzi Acosta (Euskadi)



**UZTAILAK 15 JULIO**  
Sabino Arana // 12:00

**LA CARPA INVISIBLE DEL SR. TRIFELLI**  
Cía. Passabarret (Katalunia)



**UZTAILAK 15 JULIO**  
Sabino Arana // 12:00

**GRAN RECREO**  
CQP Produccions-GAAC (Katalunia)





# «Jaiien antolaketa ez da m

**Abuztuaren 9tik 13ra bitartean ospatuko dituzte Astrabuduko San Lorentzo jaiak. Egun horietan, Uribe Kostako astorik famatuena kalera bueltatuko da jaiak alaitzera, beste behin.**

ANDER ZARRAGA ▶

**A**urten, jaiak antolatzeko ardura hartu duen jai-batzordeko taldea orain arte egon den gazteetarikoa da. Hala ere, erreleboa hartu duten gazteek deitoratu dutenez, jendea falta izan zaie guztira heltzeko, baina, euren ustez, hain auzokide gazteak horretan egotea «positiboa da», auzoarekiko konpromisoa dutela adierazten duelako.

**Pandemiak etenaldi bat suposatu zuen jai-batzorde askorentzako. Nola eragin zizuen bi urtez gelditua egoteak?** Egia esan nahiko geldialdi gogorra izan zen gurea. Pandemia hasi baino bi hilabete lehenago gure jai-batzordean inflexio puntu bat egon zen; izan ere, kide askok utzi egin behar izan zuten eta horren ondorioz bat-bateko belaunaldi aldaketa eman behar izan zen. Aldaketa hori positibotzat jotzen dugun arren, aitortzen dugu gogorra ere izan dela, azken finean, jai-batzordean egiten dugun lana izeberg moduko bat da: barrik % 20 edo gutxiago da ikusten dena.

Horren ondorioz, aurreko urtean, lanari ekin genionean, nahiko galdua sentitu ginen; eskerrak taldekide ohiak eta jai-batzordeko beteranoak beti laguntzeko prest izan ditugula!

**Zeintzuk izan dira jaiak antolatzeko orduan izan ohi dituzuen zailtasun nagusiak?** Normalean, jendearen falta sumatzen dugu. Lehen aipatu bezala, jaiak antolatzeko programazioa egitea baino askoz lan gehiago eskatzen dute eta, askotan, jende falta sumatzen dugu bileretan. Egia da inoiz egon den jai-batzorderik gazteenetakoa gurea, hori oso positiboa da, gazteok gure auzoarekin dugun konpromisoa erakusten duelako, baina gutako batzuk kanpoan ikasi eta bizi gara, beraz, dena kudeatzeko orduan oso gutxi gara lokalean. Bestalde, askotan, gazte izate hutsa gaituzte serio hartzen eta, ondorioz,



Beste urte batez, Ulpiano astoa izango

«Inoiz egon den jai-batzorderik gazteenetakoa gara, hori oso positiboa da, gazteok gure auzoarekin dugun konpromisoa erakusten duelako»

dena kudeatzeko orduan lan bikoitza daukagu: alde batetik, errespetua irabaztea, eta, bestetik, kudeaketa lan bera egitea. Horrez gain, lehenengo jaiak antolatu eta gero, egia da hori asko aldatu zela, baina ingurukoek gu «infantilizatzeko» joera handia hartu zuten.

**Zerk bereizten ditu Astrabuduko jaiak beste festetatik?** Auzolana. Oso polita da kuadrillek kalean sortzen duten giroa, eta, modu prekarioenean aurrera egiten duten jaiak izanda ere, beti dago jendea laguntzeko prest. Anekdotak bezala, gogoan daukagu aurreko urteko ginkanako proba bat egin eta gero jai-batzordeko hiru kide geundela bost mahai mugitzen eta kuadrilla bateko bost parte-hartzaile gerturatu zitzaizkigula eta mahaia hartu zi-



# agia, herrigintza da!»



da Astrabuduko jaiak animatzeaz arduratuko den pertsonaia.

Abuztuaren 9an, kuadrillen jaitisera egingo dute txupina bota aurretik.

tuztela. Guk lasai egoteko esan genien, baina erantzun ziguten haientzat ahalegintxo bat zena guretzat beste lan-erantsi bat zela, eta mahai guztiak jaso zituzten. Hau ez da magia, herrigintza da!

**Nolako harrera izaten dute Astrabuduko jaiak auzoan?** Harrera oso ona izaten dute urtero. Astrabudian bizi garenok, orokorrean, oso juergazaleak garela esan daiteke, eta ondorioz, jaiak beti dira ongietorriak. Egia da azken urteotan kuadrillen olinpiadetan parte-hartzearen beherakada handia egon dela; hala ere, beherakada hori dela eta, ohiko parte hartzaileak ez ziren lagunarte asko batu dira olinpiadetara, eta hori ere eskertzekoa da beti.

## Egitaraua

Abuztuaren 9tik 13ra izango dira aurtengo Astrabuduko San Lorentzo jaiak. Lerrook idazterako, egitaraua ez zegoen prestatuta eta, beraz, dagoenean beheko QRa eskaneatuta eskuragarri izango duzue.



**Nolakoak izango dira aurtengo jaiak?** Klasi-koetan oinarrituta, jaiak berriztuko ditugu. Aurreko urteetako akatsak kontutan hartuta, horiek ekiditeko estrategiak garatu eta programazioan moldaketak egingo ditugu.

**Sorpresaren bat prestatu duzue?** Ah! Sorpresak sorpresak dira. Aurreratu dezakeguna da aurten umeentzako ekintza gehiago prestatuko ditugula.

**Jaiei begira zer esango zeniekete herritarrei?** Mundu guztia ongietorria dela, eta baita hobekuntza helburutzat duten iradokizunak ere. Eskatu nahiko genieke baita errespetua, Astrabudia denona eta denontzat izaten jarrai dezan! ◀



**Getxo** San Lorentzo Azoka

# Landa-ingurutik Algortako erdigunera

**Abuztuaren 10ean, Algortako plazak azoka bilakatuko dituzte baserrietako produktuak eskaintzeko.**

**A**lgortako San Nikolas eta Biotz Alai plazek hartuko dituzte berriro ere Getxon egiten den abuztuko azokarik ezagunena. Eguen horretan, 10:00etatik hasita, bisitariek euskal baserrietatik zuzenean ekarritako hainbat produktu tipiko eskuratzeko aukera izango dute.

Aurten, 60 saltoki eta txosna bi jarriko dituztela iragarri dute azoka antolatzeaz arduratzen diren BBK eta Getxo Kultur Etxeak. Postuetan, Euskal Herriko nekazaritzako eta elikagaigintzako askotariko produktuak barkarrak saldu ahaliko dituzte, eta, gisa horretako jai orotan bezala, ez dira faltako taloa txorizoagaz, sagardoa edo bestelako produktuak dastatzeko aukera. Halaber, giroa alaitzeko trikitaliak eta gaiteroak ere egongo dira.

Eguna amaitzeko, Bihotz Alai abesbatzaren kantuek emango diote agurra San Lorentzo jaiari, abesbatzaren izen bera daraman



Baserrietako lehen mailako produktuak eskuratzeko aukera emango du azokak.

**Azoka 10:00etatik  
14:30ak arte egongo  
da zabalik.**

plazan, 22:00etan. Horiez gainera, Joseba Santxo eta Beñat Vidal bertsolariek eta Itxas Argia Dantza Taldeak ere euren emanaldiak eskainiko dituzte. ◀

**Gorliz** San Lorentzo jaiak

## Gandiako plazako jaietan saheskijana izango da denentzako

**G**orliz herri zabala denez, hainbat auzo hartzen ditu eta bakoitzak bere festak ere baditu. Erdigunetik urrunen dagoen auzoa da Gandiako, baina horrek ez du esan gura festarik ez duenik. Abuztuaren 10ean, Gandia auzoko bizilagunek euren eguna ospatuko dute eta sagardoz bustitako saheski mamitsua izango da, urtero legez, egun horretako protagonista. Baina ez hori bakarrik, gandiarrek musika eta zezensuzkoa eta umeentzako parkea ere izango dituzte aurten. ◀



**Abuztuak 10, eguna**

- 11:30** Umeentzako parkea.
- 14:00** Saiheski-parrillada eta sagardoa.
- 17:00** Umeentzako parkea.
- 20:00** DJ erromeria.
- 22:30** Zezensuzkoa.



## Itxas Argia dantza-taldea Portu Zaharreko jaietan dantza erakustaldia



«Momentu polit hau gogoz disfrutatu nahi dugu»

TESTUA: IKER RINCON MORENO • ARGAZKIA: ITXAS ARGIA DANTZA TALDEA ▶

**U**rtero, Portu Zaharreko jaietako une berezia da, ilunabarrean, Itxas Argia dantza taldeko kideak ikustea hormatzar handian. Diotenez, 30 kidek antolatzen dute ikuskizuna, 25 dantzari eta bost musikari, baita kontratatutako hainbat teknikari ere, «jantziak atontzeko jostunak eta boluntarioak ahaztu gabe».

**Urtero legez, hormatzar handian dantza-ikuskizuna egingo duzue. Zer berezitasun du ekitaldi horrek?** Teknikoki ekitaldi konplexua da. Batetik, kontuan hartu behar da urrunetik ikusteko dantzaldia dela; hortaz, beti saiatzeko gara dantza oso koreografikoak aukeratzen, mugimendu handikoak, eta material desberdin asko sartzen ikusgarritasuna bermatze aldera —arkuak, ezpatak, edota makilak—. Bestetik, ordubeteko iraupena izaten du, atsedetik gabe. Horrek zuzenean eragiten du dantzen aukeraketan: dantzariak bi edo hiru azpitaldetan banatu behar izaten ditugu, batzuk dantzan ari diren bitartean besteak jantziak aldatu ahal izateko eta alderantziz. Izan ere, garrantzia handia ematen diogu dantza bakoitza tokiko jantziarekin aurkezteari. Azkenik, musikarientzako ere lan gogorra izaten da ordu betez atsedetik gabe musika zuzenean jotzea.

**Eta zuentzako, berezia da?** Duda barik, urte morderoa daramagu bertan dantzatzen. Portu

### Udaldia

«Uda denboraldi gogorra eta oparoa izaten da euskal kulturaren alde lan egiten dugunontzat, jai herrikoiekin lotura zuzena baita. Gure kasuan, Paellak eta Portu Zaharreko dantzaldia izaten dira jarduerarik garrantzitsuenak, baina bada besterik»



### Kaixarranka

Portu Zaharreko dantza propioa ez izan arren, urterik urtera errepikatzen duten dantza da Lekeitioko Kaixarranka.

Zaharretako jaiak herriko kuttunenetarikoak izanik, guretat ohorea da jai-batzordeak urterik urtera gugana jotzea. Bestalde, lekua bera ere zoragarria da. Plazera da itsasoaren ondoan dantzatzea eta, are gehiago, gaez egin ahal izatea. Dantzaldi honek xarma berezia du dantzari zein ikusle moduan gozatu ahal izateko. Inoiz eduki dugu sustorik eguraldiarekin eta bertan behera utzi behar izan dugu, baina normalean aldeko izaten dugu.

**Urtez urte ibilita, aukeratutako dantzak aldatu egiten dituzue?** Urtero dantzaldi desberdin bat prestatzen dugu propio Portu Zaharreko. Egia da pieza asko errepikatzen ditugula ondo funtzionatzen dutela dakigulako. Hala ere, Euskal Herri osoko dantzak aurkeztea gustatzen zaigu eta, gure folklorea hain aberatsa izanik, oso erraza da dantzak ez errepikatzea.

**Portu Zaharrak badu dantza propiorik?** Guk dakigula ez da dantza berezik inguru honetan. Dena den, bada gure dantzaldian urterik urtera errepikatzen den dantza bat: Lekeitioko Kaixarranka. Batzuetan Matelotarekin (otzaren dantza) nahasten dugu eta beste batzuetan gordinik aurkezten dugu. Dantza benetan ikusgarria da eta, gainera, oso-oso antzinakoa (XV-XVI mendeen bitartekoa). Arrantzaleen kofradiako diruzain berriak kontuak eta sosak gordetzen zituen ka(i)xaren gainean dantzatzen omen zuen hasieran. Mendeetan ohitura hau aldatuz joan da eta gaur egun San Pedro egunez antzezten da. ◀



## Abuztuaren 11tik 14ra



### Abuztuak 11, barikua

- 12:00** Txupinaren jautiketa eta umeen kuadrillen jaitsiera, Kasino plazatik abiatuta, Ku-Klux fanfarreagaz, Portura arte.
- 13:15** Eusko Diskoteka Paco eta Urtza taldeagaz, Portuko plazan.
- 17:00** Txupinaren jautiketa eta kuadrillen jaitsiera Algortako Etorbidetik hasita. 2022an irabazi zuen TT Txobe kuadrilla izango da lehena jaisten Txoa eramateko.
- 19:30** Sardina-jana, Jenaratzun.
- 21:00** La Tropa, Portuko plazan.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.
- 22:00** Pregoiaren irakurketa 2022an irabazi zuen TT Txobe kuadrillaren eskutik, agertoki nagusian.
- 22:30-03:00** Kontzertuak agertoki nagusian.

### Abuztuak 12, zapatua

- 11:00-14:00** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepidean. Ludoteka (1-3 urte), puzgarri ertaina (2-5 urte), puzgarri handia (5 urtetik gora) eta pedaletako kotxetxoak (edozein adin).
- 10:30-12:30** Umeentzako tailerrak, Argia Fundazioaren eskutik, beheko errepidean.
- 11:00** Umeentzako pintura-lehiaketa Etxetxun, izen-emateak 12:00ak arte.
- 11:00** IX. Rugby Tokata Lehiaketa, zelaian, Getxo Rugby taldearen eskutik.
- 12:00-18:00** Bazkaria, txosna-gunean.
- 13:00** Kantu-poteoa, Portuko plazan.
- 13:30** Umeentzako kukaña, murrutzar txikian; ondoren, jostailuzko

**aldai**  
 Tapiztegia  
 Dekorazioa  
 Erakusketa  
 Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32  
 48990 Algorta  
 94 460 90 31



**Iñaki Bitxitegia**

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3      Algorta      Telletxe 1  
 94 430 23 45      94 460 27 41



ahatetxoak askatu eta nagusientzako kukaña eta jauzien txapelketa, murrutzar handian.

- 16:00** Boxeo entrenamendua, Izarrak Boxing Klubaren txosnan.
- 16:30-16:30** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepidean. Ludoteka (1-3 urte), puzgarri ertaina (2-5 urte), puzgarri handia (5 urtetik gora) eta pedaletako kotxetxoak (edozein adin).
- 18:00** Sokamuturra, hondartzatxoan.
- 19:30** Sardina-jana, Jenaratxun.
- 19:30** Bertso-saioa, Portuko plazan. Bertsolariak: Andoni Egaña eta Unai Mendiburu.
- 21:00** Juan Carlos Pitxel, Portuko plazan.
- 21:30** Zezensuzkoa, agertoki nagusiaren atzean.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.
- 22:00** Dantzak murrutzar handian, Itxas Argiak antolatuta.
- 22:30-03:00** Kontzertuak agertoki nagusian.

### Abuztuak 13, domeka

- 11:00-14:00** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepidean. Ludoteka (1-3 urte), puzgarri ertaina (4-8 urte), zezen mekanikoa (5 urtetik gora) eta pedaletako kotxetxoak (edozein adin).
- 11:00-13:30** Umeentzako jolasak, Portuko plazan.
- 11:00-14:00** Skate-tailerra, errepidean.
- 11:30** Umeen estropada ergometroetan, Arrauneko txosnaren aurrean, Getxo Arraun taldeak antolatuta.
- 12:00** Kantu-poteoa, txosna-gunean.
- 14:00** Antzar-jasoaldiak.
- 17:00-19:00** Skate erakustaldia eta hastapen tailerra, errepidean.
- 18:00** Kirol erakustaldia.
- 18:00** Bits-jaiak, errepidean.
- 19:00** Euskal Herriko 3. mailako Aizkolari Txapelketa, Getxo Herri Kirol taldeko txosnaren aurrean.
- 19:00** Zumba Rosi, Ylenia eta Ritagaz, agertoki nagusian.
- 19:30** Sardina-jana, Jenaratxun.

- 21:00** Kontzertua Portuko plazan.
- 21:00** Kuadrillen aktuazioa, agertoki nagusian.
- 21:30** Zezensuzkoa, agertoki nagusiaren atzean.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.

### Abuztuak 14, astelehena

- 09:30** Marmitako Txapelketaren izen-ematea. Oharra, ezin da agertoki nagusia erabili marmitakoak egiteko.
- 12:00** Marmitakoak entregatzeko hasiera, 14:00ak arte, Etxetxun.
- 16:00-18:00** Elektrotzaranga, txosna-gunean.
- 18:00-20:00** Ginkana agertoki nagusian, Gazte Txosnak antolatuta.
- 18:00** Bertsolariak, Portuko plazan. Bertsolariak: Maite Sarasola eta Peio Lago.
- 18:30** Marmitako Txapelketaren sari-banaketa, Portuko plazan.
- 21:00** Kuadrillen Txapelketako sari-banaketa, agertoki nagusian.
- 21:30-02:30** Kontzertuak, agertoki nagusian.



### Abuztuak 15, martitzena

- 06:30** Txoaren erreketak eta jaiak amaitzeko traka, murrutzar handian.



Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala behin betikoa emango dugu HIRUKA.eus-en

PORTU  
ZAHARRA  
TABERNA

Portu Zaharra, 35, 48991 Getxo @portuzaharrataberna



Aretxondo kalea 20, 48991 Getxo

944 02 27 79

**Lemoiz** Andra Mari jaiak

# Urteroko jaiak bueltatu dira Lemoizko kaleetara

**Urtero legez, abuztuko jairik gozagarrienak ospatuko dituzte Lemoizen: andramariak. Ez dira faltako kontzertuak eta lehiaketak jai herrikoï hauetan.**

**A**buztuko beroari aurre egiteko, 11tik 19<zra lemoiztarrek aukera izango dute urtero legez herriko jaietan parte hartzeko eta giro onaz gozatzeko. Urtero bezala, tradizio luzea duten lehiaketek osatzen dute programazioa: besteak beste, frontenis-txapelketa, 43. Mus Txapelketa, 44. Paella Lehiaketa, saskibaloï torneoa edota 57. Tute Txapelketa.

Gainera, euskal jai herrikoï guztietan bezala, eskaintza musikal oparoa eskainiko dute aurtengo egitarauan publiko ezberdinetara zuzendua; hala, Xaïbor diskofesta, Rock&Rollo musika taldea edota Petit Comite musika taldeak ibiliko dira giroa animatzen. Bukatzeko, gazte eta helduentzako jaiak izateaz gain, umeek ere ondo pasatzeko aukera izango dute jai hauetan, horregatik, haietzako pentsatuta dauden hainbat ekintza antolatu dituzte; horien artean, bitsa jaiak edota haurrentzako frontenis-txapelketa. ◀

## Abuztuaren 11tik 19ra

### Abuztuak 11, barikua

- 19:00 Frontenis-txapelketaren finala.
- 20:30 Txupinaren jaurtiketa.
- 21:00 Sardina-jan herrikoïa.
- 22:00 Musika Mariachi Amatitan taldearen eskutik.
- 23:30 Patata dantza, txosnan.

### Abuztuak 12, zapatua

- 11:00 Kalejira trikitiagaz.
- 12:00 44. Paella Txapelketa.
- 12:00-14:00 / 16:00-18:00 Uretako puzgarriak.
- 17:30 43. Mus Txapelketa.
- 18:00 Bitsa jaiak.
- 20:30 Paella Lehiaketaren sari banaketa.
- 21:00 Sardina-jan herrikoïa.
- 21:30 Diskofesta: Xaïbor.

### Abuztuak 13, domeka

- 10:00-14:00/16:00-20:00 Saskibaloï torneoa umeentzako.
- 20:30 Saihets-jan herrikoïa.
- 20:30 Kontzertua, zehazteke.

### Abuztuak 14, astelehena

- 12:00 Haur frontenis txapelketa.
- 17:00 43. Nazioarteko Tortilla Txapelketa.
- 21:00 Tortilla Txapelketaren sari banaketa.
- 22:00 Kontzertua: Rock&Rollo.

### Abuztuak 15, martitza

- 11:00 Meza nagusia Andra Mariren omenez.
- 12:00 Herri Krosa, nagusi eta umeentzat.
- 17:00 21. Briska Txapelketa (bikoteka), eta 57. Tute Txapelketa.
- 21:30 Bingo berezia eta zozketa.
- 22:00 Txokolate-edana eta azken traka.

### Abuztuak 16, eguaztana

- 12:00 Hildakoen omenezko meza.
- 13:00 Herriko amama eta aititentzako hamaiketako.

### Abuztuak 19, zapatua

- 14:30 Herri bazkaria (apuntatzeko txosnan).
- 16:30 Kontzertua: Petit Comite.

**Plentzia** Agorrijazz

## Jazz doinuen erdigunea bilakatuko da Plentzia abuztuaren 11n eta 12an

**B**ost kontzertu dakartza aurtengo Agorrijazz Plentziako jazz musikaren jaialdiak. Abuztuaren 11n eta 12an, barikuan eta zapatuan, rhythm & blues, rock, funk, groove eta jazz estiloen zaleek musika mota horregaz gozatzeko aukera izango dute hiribilduan.

Uda honetako edizioko lehen egunean, Arima Soul taldeak irekiko du jaialdia 20:00etan, eta horien ostean, 22:00etan, Wax and Boogie taldearen txanda izango da.



Jaialdiaren bigarren jardunaldia 13:00etan hasiko da Papiro Blues taldearen 70. hamarkadako rock zaporea duten abestiakaz. Iluntzean, aldiz, Sweet Marta & Blues Shakers talde esanguratsua txanda izango da. Sweet Martak leku nabarmena lortu du urte gutxian Espainiako Estatuko blues eszenan, bera baita dagoen emakume harmonika-jole bakarra. Bukatzeko, Flamingo Tours Bartzelonako rock 'n' roll talde independenteak itxiko du jaialdia 22:00etatik aurrera. ◀



Leioa San Bartolome jaiak

# Sanjoanak ez dira Leioan ospatzen diren jai bakarrak

**Leioako San Bartolome auzoko festek lau egun hartuko dituzte aurten ere, abuztuaren 24tik 27ra, hain zuzen ere. Horretarako, egitarau ederra prestatu dute auzokideek.**

**I**az egin zuten egun bateko luzapenaren ostean, uda honetako Leioako San Bartolome auzoko jaiak lau eguneko egitarauari eutsiko diote.

Auzoko bizilagunek argi utzi dute San Bartolomen antolatzen den komunitate bat dagoela, eta urtez urte jaiak eta askoz gehiago antolatzeko gai direla, hala nola maiatzean egiten duten Sanbar Blues Fest musika-jaialdia, txangoak, berbaldiak, tailerrak...

Beste urte batez, San Bartolome basilizaren inguruan batuko dira auzokideak jaiak ospatzeko. Horretarako, umeentzako jarduerak egingo dituzte, nagusiek ere euren tarte izango dute eta ez dira faltako txapelketa gastronomikoak eta erakustaldiak.

Aurtengo eskaintza musikarari dagokionez, Etxebarria Aita & Semea trikitilariak errepikatuko dute, eta Gora Herria eta Urrats taldeen erromeriak egongo dira barikuan eta zapatuan, hurrenez hurren. ◀

Gorliz Urezarantzako jaiak

## Badator mende erdi baino gehiago duen Sukalki Txapelketa

**K**iroldegiaren eta Okarantxuren artean banatuko dute Urezarantza jaietako programa Gorlizen. Jaietako pizgarri nagusia lehiaketak badira ere, sukalki- eta tortilla-lehiaketak, karta-jokoa eta herri kirolak egiten baitituzte, giro ona da beti gailentzen dena. Aurten, 51. Sukalki Txapelketa egingo dute, tradizio handiko ekitaldi gastronomikoa Gorlizen. Aurreko urteetan bezala, ezin izango da egur-surik egin, eta Artebiondo estratatik sartu eta Txosnako estratatik irten beharko da sukaldarien esparrura. ◀

### Abuztuaren 24tik 27ra

#### Abuztuak 24, eguena

- 11:30** Txupinaren jaurtiztea eta jaien hasiera.
- 12:00** Meza eta ohorezko aureskua.
- 12:45** Nagusientzako otordua.
- 13:00** X. Igel-toka Txapelketa.
- 18:00** Umeentzako puzgarriak.
- 19:30** Mozorro lehiaketa eta Kuklux fanfarrea.
- 21:00** Sardina-jana.
- 22:30** Berbena: Nonbait.

#### Abuztuak 25, barikua

- 11:00** Umeentzako tailerrak.
- 11:30** Margo-txapelketa.
- 14:30** Margo-txapelketaren sari-banaketa.
- 18:30** Asto-probak.
- 19:00** Elektrotxaranga eta zezen mekanikoa.
- 19:30** XVII. Tortilla Txapelketako izen-ematea.
- 21:00** Tortillen aurkezpena eta sari-banaketa.
- 23:00** Berbena: Gora Herria.

#### Abuztuak 26, zapatua

- Goizetik Etxebarria Aita & Semea trikitilarien doinuak.
- 10:30** Euskal produktuen azoka.
- 11:30** Umeentzako talo-tailerra.
- 13:00** Kantu-txosneo herrikoia.
- 15:00** XII. herri bazkaria eta bingoa.
- 19:30** Motozerra erakustaldia.
- 21:30** Kontzertua.
- 23:00** Erromeria: Urrats.

#### Abuztuak 27, domeka

- Goizetik Etxebarria Aita & Semea trikitilarien doinuak.
- 11:00** LVI. Marmitako Txapelketa.
- 11:00** Umeentzako marmitako masterklass.
- 13:30** Apar-jaia.
- 13:30** Lapikoen aurkezpena.
- 18:00** Marmitako Txapelketako sari-banaketa.
- 18:30** Asto-probak eta zumba.
- 20:30** Jai ei agur esateko txokolatada.

### Abuztuak 19 eta 20

#### Abuztuak 19, zapatua, Kiroldegian

- 12:00** Puzgarriak.
- 12:30** Aratz taldearen dantzaldia.
- 13:00** Luntxa danontzat trikitiagaz girotuta.
- 16:30** Umeentzako parkea.
- 16:30** Tute txapelketa.
- 17:30** Tortilla txapelketa
- 20:30** Disko Gaua.
- 22:30** Zezensuzkoa.

#### Abuztuak 20, domeka, Okarantxun

- 10:00** LI. Sukalki Txapelketa.
- 12:00** Trikitilariak.
- 13:30** Lapikoen aurkezpena.
- 17:00** Sukalki Txapelketaren sari-banaketa.
- 18:00** Jolasak: zaku-lasterketak, aulkiena, txingak...
- 22:30** Elektrotxaranga eta jaien amaiera.

# «Jaiak elkar disfrutatzen g

ANDER ZARRAGA ▶

**E**randion, Altzagako jaiak itxiko dute abuztua. 24tik 28ra bitartean ospatuko dituzte Agustin Deunaren omenezko festak auzo erandioztarrean. Horiek antolatzeko beharra hartu duen jai-batzordeagaz egon da HIRUKA festen antolaketa-lanen inguruan galdetzeko.

**Aurten jaiak Bilboko Aste Nagusiagaz koinzidituko dute. Horrek zailtasun asko eragin dizkizue antolaketa lanetarako?** Betidanik, Agustin Deunaren jaiak bat egiten dute Bilboko Aste Nagusiarekin, noizbehinka urte solteak ditugu Bilborekin ez ditugunak koinziditzen. Dena den, arazoa ez da soilik daten kontu bat, teknikoa baizik. Izan ere, Bilboko jaiak ospatzeko material tekniko izugarria behar izaten dute, ondorioz, enpresa gutxi daude data horietan guri zerbitzu-teknikoa emateko, hala nola kontzertuetako sonorizazioa eta argiztapena eskaini diezaguketanak. 30 enpresari galdetu diegu eta guztiek datak beteta dituztela esan digite.

**Bestelako arazorik izan duzue jaiak antolatzeko orduan?** Bai, urtero-urtero arazoak izaten ditugu; nahiko ohikoa izaten da. Baina gure erronka da arazo horiek kudeatzea eta ahal den neurrian gure auzokideek jaietz gozarazten jarraitzeko aukera izatea.

**Horrez gain, COVID-19aren pandemiak ere etenaldia suposatu zuen jai-batzorde askorentzako. Zuei ere asko eragin zizuen?** Bai, jai-batzorde askorentzat bezala, guretzat ere pandemiak etenaldi gogorra suposatu zuen. Lan-taldea mantentzea lortu genuen, baina kideen motibazioa galdu egin zen eta gutxi batzuk bakarrik mantendu gara honetan.

**Nola eragin zizuen bi urtez geldituta egoteak?** Ez ziren bi urte soilik izan. Pandemia heldu zenerako 2020ko jaiak erdi antolatuta geneuzkan, baina, bertan behera utzi behar izan genituen. 2021ean, ekintza txiki batzuk antolatzeko aukera izan genuen, baina urte horretan gure erronka pandemiarekiko neurriak betearaztea izan zen.

**Nolakoa izan da hortik atera den jai-batzordea?** Orduan jai-batzordean zeuden kideetako



Aurten ere, kuadrillei zuzenduta egongo

«Jai-batzorde askorentzat bezala, guretzat ere pandemiak etenaldi gogorra suposatu zuen. Lan-taldea mantentzea lortu genuen, baina kideen motibazioa galdu egin zen»

askok batzordea utzia zuten, hala ere, orduetik kide berriak gehitzen joan dira.

**Zelan definituko zenituzkete Altzagako jaiak?** Jai herrikoiak dira. Gure helburua erandioztar guztiek jaietan ondo pasatzea da. Horretarako, adin guztietarako ekitaldiak bilatzen saiatzen gara.

**Nolako harrera izaten dute jaiak auzoan?** Altzagako jaiak oso herrikoiak direnez, herritarrengan pentsatuta diseinatuta daude eta guztiok elkar disfrutatzen gunea dira. Argi daukagu ez dugula Bilbo, Leioa, Santurtzi, Barakaldo edo Plentzia bezalako udalerriek duten aurrekontua, gurea askoz murriztagoa baita, baina horrexegatik zerbait alternatiboago eskaintzen saiatzen gara.

**Ohi bezala, kuadrillak izango dira jaietako bihotza eta arima. Zenbatek parte hartuko dute aurtengo probetan?** Aurten kuadrillen kopurua mantendu egingo da: bederatzita kua-



# unea dira»



diren hainbat proba eta jarduera antolatuko ditu jai-batzordeak.

drillek hartuko dute parte. Ea kuadrilla berriak animatzen diren eta kopuru hori handitzea lortzen dugun hurrengo urteetako jaietan.

**Sorpresaren bat prestatu duzue?** Aurten familia-lehiaketak antolatuko ditugu lehenengo aldiz. Kuadrillen arteko lehiaketaren antzeko frogak egingo dituzte, baina parte-hartzaileen adinera egokituta. Gainera, frogak parte-hartzaileek pentsatu eta antolatuko dituzte, beraien taldekideek duten adina kontutan hartuta eta horretara egokituz.

**Jaiei begira, zer esango zeniekete erandioz-tarrei?** Bueltan ditugula jaien ohiko datak: abuztuak 24-28, eta, beraz, ez dela horietarako ezer geratzen. Pilak kargatuta ekarri eta etor zaitezte primeran pasatzeko asmoz. Hori bai, topera gozatu, baina errespetuz eta gune aske eta seguru bat lortuz.

**Zerbait gehiago aipatu nahiko zenukete?** Gora San Agustin, gora Txupin eta gora Erandio! ◀

## Abuztuaren 24tik 28ra

# Abuztuaren 24an, Txupin suziriak Altzaga auzoko jaiak piztuko ditu



**S**an Agustin jaiak antolatzen ari den herritar taldeak kontatu du, zailtasunak gorabehera, gogor ari dela lanean Altzaga auzoko jaiak handikiro ospatzeko. Oraindino behin betiko egitaraua itxi barik izan arren, abuztuaren 24tik 28ra bitartean Txupin kaleetan izango dela bermatu dute eta, momentuz, lotuta dituzten jardueren berri ere eman digute. Hala ere, lau egun horietarako egitarau oparoa prestatzen ari direla azpimarratu dute. Hemen duzue jaietako programaren aurrerapen bat:

### Abuztuak 24, eguna

- 13:00 Pregoia eta txupinaren jaurtitzea, Irailaren 23a plazan.
- 18:00 Umeentzako Txiki Txupina.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 23:00 Super Hollywood orkestra.

23:00 Kontzertua: McOnak.

### Abuztuak 27, domeka

- 12:00 Euskal dantzen erakustaldia.
- 13:00 Nagusientzako luntxa.
- 15:00 Nagusientzako bingoa.
- 17:00 Umeentzako puzgarriak.
- 18:00 Erraldoiak eta kilikiak.
- 19:00 Txitxarrilloa.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 23:00 Erromeria: Akerbeltz.

### Abuztuak 25, barikua

- 11:00 Uretako puzgarriak.
- 12:00 Tortilla-lehiaketa.
- 17:30 Umeentzako disko-dantza.
- 19:30 Bilbainadak.
- 22:00 E!TEK gaua.

### Abuztuak 28, astelehena

#### Agustin Deunaren eguna

- 13:00 Meza nagusia.
- 13:30 Ohorezko aureskua.
- 18:00 Erraldoiak eta kilikiak.
- 19:00 Mariatxiak.
- 21:30 Zezensuzkoa.
- 22:30 Agurra eta jaien amaierako traka.

### Abuztuak 26, zapatua

- 11:00 Umeentzako puzgarriak.
- 12:00 Paella-lehiaketa.
- 12:30 Kukaña.
- 17:00 Euskal Inertzia Kopa (goitibeherak).

Egitarau hau behin-behinekoa da, eta lotuta dauden ekitaldiak hartzen ditu soilik; San Agustin jaiak hurbildu ahala behin betikoaren berri emango dugu [HIRUKA.eus-en](http://HIRUKA.eus-en)



# Madalentxu eta Antolintxu

**Abuztuaren 26an ospatuko da Plentzian Antolintxu eta Madalentxu Eguna. Hitzordu horretan jakinaraziko dute nortzuk izango diren jaietako protagonista nagusiak, eta egun batzuk beranduago emango diete hasiera hiribilduko jai handiei.**

**U**rtero legez, Plentzian Madalentxu, Antolintxu eta bien haur-bertsioak aurkeztuko dituzte abuztuaren 26an. Egun horretan, plentziarrek bozkatu dituzten herritar esanguratsuak jakinaraziko dituzte: heldu bi eta gazte bi. Horiek izango dira San Antolin jaietako protagonista handiak, baina lasai egon, ez dituzte erreko festak bukatzen direnean.

Egun batzuk beranduago, abuztuaren 29an, herri-bazkari batez hasiko dituzte plentziar askok hainbeste itxaroten egon diren jai handiak, eta irailaren 3ra bitartean, ume, gazte, heldu eta nagusientzako hainbat jarduera egingo dituzte.

Festa-zerrenda luze baten azkenak izango dira sanantolinak, eta plentziarrek ez dute aukera galduko udari behar bezalako agurra emateko. Besteak beste, abuztuaren 29an, Itxas Eder taldeak dantza erakustaldia egingo du; abuztuaren 30ean, *El Conquis* telebista-saioko probak egiteko aukera egongo da Legarrondon; abuztuaren 31 lehiaketa gastronomikoen eguna izango da, umeek tortilla eta entsaladak egingo dituzte, eta helduek, aldiz, paellak; irailaren 1ean, CXXIX. Nekazaritza Azokagaz batera Euskal Jantzi Tradizionalen erakusketa egongo da Erribera kalean; irailaren 2an, Plentzia La Gallarda familientzako herri-krosa egingo dute; eta, jaietako azken egunean, irailaren 3an, XLX. Marmitako Lehiaketa izango da eguneko ekitaldi nagusia.

Arestian aipatutako ekintza nabarmenez gain, beste hamaika jarduera egongo dira egun horietan, hala nola musika emanaldiak, umeentzako jarduerak eta eguneroko programa itxiko duen zezensuzkoa. ◀

## Abuztuaren 26tik irailaren 3ra



### Abuztuak 26, zapatua

#### Antolintxu eta Madalentxu Eguna

**11:00** Kalejira, Plazatxotik hasita Erribera kalean zehar eta Eliz plazaraino. Ostean, Antolintxu eta Madalentxuen ohorezko meza.

**13:00** 2022ko Antolintxu eta Madalentxuren aurkezpena. Bukatzeko, aurreksua eta dantzak.

### Abuztuak 29, martitzena

**14:30** Herri-bazkaria.

**17:45** Harrera Antolintxu eta Madalentxuri.

**18:00** Txupinaren jaurtitzea. Ostean, Andra Marirako igoera eta aurreksua.



## UDAKO IKASTARO TRINKOAK eta BARNETEGIAK

Matrikula epea: ekainean eta uztailean.

**23/24 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA ZABALIK!**

Informazio gehiago nahi baduzu:

Leioa: 944 64 60 63 | [lamia@aek.eus](mailto:lamia@aek.eus)

Getxo: 944 304 734 | [lauaxeta@aek.eus](mailto:lauaxeta@aek.eus)

Plentzia: 946 77 36 07 | [jentilbaso@aek.eus](mailto:jentilbaso@aek.eus)

Gorliz: 946 77 36 46 | [jentilbaso@aek.eus](mailto:jentilbaso@aek.eus)

☎ 688 746 776

[www.facebook.com/UribeKostako-AEK](https://www.facebook.com/UribeKostako-AEK)

[www.aek.eus/blogak/uribekosta/](http://www.aek.eus/blogak/uribekosta/)

[www.aek.eus](http://www.aek.eus)

Informazio gehiago





# uren eskutik datozen jaiak

**20:00** Dantza-saioa, Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik, Ontziola plazan.

**22:00** Zezensuzkoa, Ontziola plazan.

**23:00** Gau zuria.

**23:00** Photocall-a, udaletxean.

## Abuztuak 30, eguaztena

**11:30** El Conquis Ginkana, Legarrondon.

**18:00** Nagusientzako arrastia bingo- eta briska-jokoakaz.

**21:30** Zezensuzkoa, futbito zelaian.

**22:00** Helduen Play-Back Lehiaketa.  
Dj gaua: Tekno/Rivertech.

## Abuztuak 31, eguena

**10:00** Umeen Tortilla Lehiaketa (izen-ematea, udaletxean).

**10:00** Umeen Entsalada Lehiaketa (izen-ematea, udaletxean).

**10:00** Paella Lehiaketa (izen-ematea, udaletxean).

**12:00** Entsalada eta tortillen aurkezpena.

**13:00** Paellen aurkezpena.

**13:30** Bitsa-festa, Ontziola plazan.

**14:30** Sari-banaketa.

**18:00** Umeen eta familien Mozorro-lehiaketa eta sari-banaketa.

**22:00** Zezensuzkoa, futbito-zelaian.

**22:30** Kontzertuak, Ontziola plazan.

## Irailak 1, barikua

**09:00** Eskualdeko CXXIX. Nekazaritza Azoka.

**10:00** Diana, txistulariakaz eta buruhandiakaz.

**12:00** Euskal Jantzi Tradizionalen erakusketa, Erribera kalean.

**13:30** Erromeria herrian zehar.

**18:30** Helduen Mozorro Lehiaketa.

**20:30** VIII. San Antolin Bertso-saioa, Pirata bertso-eskolaren eskutik: Sustrai Colina, Andoni Egaña, Nerea Ibartzabal eta Maialen Lujanbio, Eliz plazan.

**22:00** Zezensuzkoa, futbito-zelaian.

**22:30** Kontzertua.

**22:30** Bakarrizketa-gaua, Eliz plazan.

## Irailak 2, zapatua

**10:00** Txupinaren jaurtitzea eta txistulariak herrian zehar.

**10:00** Plentzia La Gallarda IV. Familien arteko Herri Krosa, Plazatxotik.

**11:30** Antolintxu, Madalentuku eta Udalbatzaren kontzentrazioa, Ontziola plazan.

**12:00** Antolin Deunaren ohorezko meza eta aureskua.

**13:30** Musika Bandaren kontzertua.

**14:30** San Antolin koktela, txarangak girotua.

**18:00** Umeen Play-Back Lehiaketa.

**19:30** XII. Plentzia Kantari.

**20:00** Elektrotxaranga.

**22:00** Zezensuzkoa, futbito zelaian.

**23:00** Kontzertuak, Ontziola plazan.

## Irailak 3, domeka

**10:00** Diana.

**10:00** XLX. Marmitako Lehiaketa.

**13:30** Marmiten aurkezpena.

**17:00** Marmitako Lehiaketaren sari-banaketa

**18:00** Olinpiadak.

Urrezko alpagaten banaketa.

Kalejira herrian zehar.

Antolintxu eta Madalentukuren agurra.

Jaiaren amaiera zezensuzkoen entzertiroagaz.

Areatza, 54 · Plentzia

# Gorrondona



94 407 69 18



# EUSKARA ZERBITZUAREN DIRULAGUNTZAK -2023



Aurten,  
Erudioko autoeskoletan

GIDABAIMENA

# EUSKARAZ

ateratzen baduzu,

**100 €**ko

dirulaguntza  
jasoko duzu.

info  
+ago

Zure autoeskolan  
edo Erudioko Euskara Zerbitzuan.

euskara@erudio.eus

IRREGAI-TXARTEL  
**100 €**



ERROTULAZIORAKO DIRULAGUNTZAK  
2023  
SUBVENCIONES ROTULACIÓN



**Errotuluak euskaraz edo  
euskaraz eta gaztelaniaz  
jartzeko dirulaguntzak**

INFORMAZIORAKO QR KODEA  
QR CÓD. con INFORMACIÓN



Subvenciones para la  
rotulación en euskera  
o euskera y castellano

## EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZAK



Laguntzak eskatzeko azken eguna:



[www.erandiokoeuskarazerbitzua.eus](http://www.erandiokoeuskarazerbitzua.eus)  
[euskara@erudio.eus](mailto:euskara@erudio.eus)  
94 48 90 128



Euskararen baratzea... ezagutzuz aldatzea! Joseba Santxo



# Ansonekoa (2)

**D**aborduko jaietan murgildu gara. Gorputzak ezohiko martxa eskatzen digu: lagunarte alaiak, tragoak, ikuskizunak, dantzaldiak eta gau luzeak. Ansonekoaren garaian ere (Urduliz, 1812-1856) jai eta ospakizunetan giro aparta sortzen zen, aisialdirako zein indar erakustaldietarako, hurrengo gertaera parean ikusiko duzuenez:

Sanmigelak ziren Laukizen, eta halakoetan, eskualdeko baserritar guztiak **parajetzen** ziren erromeriako landara, zein inguruko **ardandegietara**. Urduliz eta Laukiz artean zegoen Aizkorre tabernan gizon bi zeuden askaltzen, bata laukiztarra eta bestea mungiarra. Halako batean, Ansonekoa morroskoa atetik sartzen ikusi zuten, eta hari buruz esaten zirenak egiaztatu gurarik –ordurako Ansonekoaren indartsu ospea Bizkai osora zabaldua baitzen–, lehenengo hura mozkortzen ahalegindu ziren, ardaora **pattarra** botaz, horretara makalduko zelakoan. Gero, mungiarrek erronka bota zion Ansonekoari pultsuan egiteko, lagun biak pultsolari bikainak baitziren. **Paratu** ziren, ba, **pultsuan** egiteko, baina Ansonekoak Mungiakoaren kokapenari desegoki iritzi zionez gero, paparretik heldu eta airean eduki ondoren, mahaiaren gainetik jaurti zuen indarrez. Mungiarrek, ‘debaldeko hegaldiagatik’ amorratuta, lagunari esan zion argia amatatzeko, eta makilak hartuta Ansonekoari oldartu zitzaizkion astinaldi bat emateko ustean. Orduan, Urdulizko titanak ilunpean arrimatu zitzaion lehenengoari besapetatik oratu eta gora altxatu zuen **txotxongilo** baten moduan, eta halaxe eroan zuen alboko gelaraino, inguruko txilio artean. Pultsolari entzuetzuek polito umildurik egin zuten ospa handik.

Beste batean, 1853an, gure Ansonekoa Basurtuko (Bilboko Abandon) ganadu-azokara joan zen Santiago egunez. Ospakizun hartan baserritar giro aparta izaten zen eta, ordukoan, Ansonekoa Ramon Artaza anaiarekin joan zen. Honek idi pareta jo zuen begiz, eta **narraren** proba egitera zihoala, arratiar batzuek aurea hartu eta **katea** kendu zioten eurek aurretik egiteko proba. Orduan, Ansonekoa, anaia estualdian barruntatuta, hurreratu egin zen hamabi bat arratiar ziren tokira. Haiek katearen mutur bati helduta zeuden, eta Ansonekoak beste muturrari oratu eta **tenkada** gogor bakarrez **narras** eraman zituen arratiar guztiak, sokatira *extrem*-eko tiraldi inprobisatu hartan.

Jazoerok zizka-mizkak baino ez dira izan. Urdulizko Juan Bautista Artaza Iraolaga *Ansonekoaren* onenak irakurtzeko zaudete oraindik. Hurrengo alean beharko! ◀

## Berba azoka

**Daborduko**

Dagoeneko.

**Parajetu**

Hurreratu, hurbildu.

**Ardandegi**

Taberna.

**Pattar**

Zenbait gairen destilaziotik ateratzen den edari bizia.

**Paratu**

Jarri, prestatu.

**Pultsuan egin**

Pultsu norgehiagokan aritu.

**Txotxongilo**

Harien bidez mugiarazten den panpina.

**Narra**

Lera, pisuak herrestan eramateko erabiltzen den gurdi modukoa.

**Kate**

Hemen, narra idien uztarriari lotzeko katea.

**Tenkada**

Tiraldia.

**Narras**


Dandarrez, herrestan, arrastaka.



**Urduliz** Andra Mariko jaiak

# Udari merezi duen agurra

Udako azken jaiak izanda, oraindino Urdulizko Udalak eta jai-batzordeak ez dute Andra Mariko jaietako egitarau osoa osatu. Hala ere, jai egunotarako kontzertu batzuk lotuta dituzte, eta, horrela, gurera ekarri ditugu emanaldion programazioa, egun horietako aurrerapen gisa.



## Irailaren 7tik 24ra

**Irailak 7, eguena**

- Puro Relajo

**Irailak 9, zapatua**

- Chalwa
- Urrats

**Irailak 15, barikua**

- Delirium Tremens
- Garilak 26

**Uztailak 16, zapatua**

- Deabru Beltzak
- Oxabi

**Irailak 8, barikua**

- Lowe And Friends

Jaiak hurbildu ahala, egitarau osoa dugunean, ekimen guztien berri emango dugu [HIRUKA.eus-en](http://HIRUKA.eus-en)



# TXIBERRI

---

edantokia

Frontoi partikularra,  
terraza estalia,  
bokatak,  
artisansu-garagardoak,  
eramateko tortila osoak  
eta askoz ere gehiago.



Gustora egoteko behar duzun guztia!

Aita Gotzon kalea, 4 • URDULIZ • 946.760.715



# emateko jaiak



## Kuadrillen arteko jolasak Andra Marin

Egitarau guztia osatuta eduki ez arren, inoiz ez dute huts egiten kuadrillen arteko lehiak Andra Marin. Hala, musika eta giro onaz gozatzearaz gain, herriko gazteen arteko jolasek herria berpiztuko dute aurten ere Urdulizko jaietan.

## Jaiak Irailera begira

### Jaiak ez dira abuztuan bukatuko; oraindino ere festarako tartea dago

Jaiak dira uztaileko eta abuztuko protagonista handiak, hala ere, irailean ez dira ospakizun guztiak amaituko. Izan ere, aipatutako Urdulizko Andra Mariko jaietz gainera, beste hainbat festa ere ospatuko dituzte Uribe Kostako bazter ezberdinetan. Orriotan guztioan eskualdean ditugun jai nagusi guztien berri ematen ahalegindu gara, hala ere, badakigu Uribe Kostako beste hainbat auzotan ere jaiak ospatuko dituztela irailetik aurrera.

Den-denei lekua egin gura diegu eta, horregatik, hurrengo HIRUKA aldizkarian horien berri emango dugu, irailean. Halaber, HIRUKA.eus webgunean ere 2023ko udako jaien atal berezia dugu martxan, non, egitarau guztien berri emateaz gain, gure irakurleek jaiak utzitako eduki multimediez gozatu ahalko duten. Beraz, etorkizuneko jaien berri izan gura baduzu, edota festetako oroitzapenak betirako gordeta utzi gura badituzu, ez galdu argitaratuko ditugun edukiak! ◀

Besteak beste, irailean Udondoko jaiak ospatuko dira.



## Telegram kanala

Uribe Kostako informazioa zure eskura!



**Bertsolaritza** ALBEren udako agenda

# Bertsolariak plazaz plaza arituko dira udan

**Algortako Bertsolari Eskolak egitarau oparoa prestatu du udaldian bertsolari onenen koplak eskualde osoko plazetan zabaltzeko. Bertso Maratoia edo Hitzaren Dantza bezalako jaialdi esanguratsuenakaz batera, beste hamaika saio egingo dituzte eskualdeko udalerrietan.**

## Uztailetik irailerako saioak

**Uztailak 12, eguaztena**

### Bertso Jaialdi Mundiala

**19:00 | Muxikebarri Antzokian**

Bertso-jaialdi esperimental honek Muxikebarri leporaino betetzen du urtez urte. Horretan, bertsolariek zein bertsozaleek sorpresa bat baino gehiago hartuko dute.

**Bertsolariak:** Kerman Diaz, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Miren Artetxe, Unai Iturriaga eta Julio Soto.

**Uztailak 26, eguaztena**

### Gorlizko Santiago jaiak

**20:00 | Eliz plazan**

Gorlizko jaietan tradizio eta arrakasta handia duen bertso-saioa egingo dute.

**Bertsolariak:** June Diaz, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi eta Saioa Alkaiza.

**Gai-jartzailea:** Beñat Vidal.



**Uztailak 29, zapatua**

### Algortako San Inazio jaiak

**13:00 | Algortako Kasinoko plazan**

Etxean ere bertso-saioak ez dira faltako; kasu honetan, Kasinoko plaza agerleku mitiko horietako bat da Algortan.

**Bertsolariak:** Amets Arzallus, Imanol Uria, Nerea Elustondo eta Erika Lagoma.

**Gai-jartzailea:** Maider Barañano.

**Uztailak 30, domeka**

### Algortako San Inazio jaiak

**13:00 | Algortako Kasinoko plazan**

Aurten ere saio bikoitza egingo dute Algortako San Inazio jaietan.

**Bertsolariak:** Oihana Iguaran, Jone Uria, Unai Iturriaga eta Eñaut Martikorena.

**Gai-jartzailea:** Beñat Vidal.

**Uztailak 31, astelehena**

### Bertso Maratoia

**13:00 | Algortako Kasinoko plazan**

San Inazio Egunean eguerditik hasita hainbat bertso saio egingo dituzte Algortako taberna eta bazterretan. Bertso-bazkaria ere egingo dute.

**Bertsolariak:** Joanes Illarregi, Onintza Enbeita, Maialen Lujanbio eta Aitor Sarriegi.

**Gai-jartzailea:** Jon Amezaga.

**Maratoilariak:** Maialen Lujanbio eta Aitor Sarriegi.

**Abuztuak 3, eguena**

### Itzulbatzeta/Romoko jaiak

**16:00 | Txosna-gunean**

Beste urte batez, ALBE eta Itzulbatzeta/Romoko jai-batzordeak elkarlanean bi bertso saio prestatu dituzte jaietarako: bertso-jaialdia eta bertso-poteoa.

**Bertsolariak:** Paule Loizaga, Jone Uria, Andoni Egaña eta Sustrai Colina.

**Gai-jartzailea:** Peru Vidal.



**Abuztuak 5, zapatua**

### Itzulbatzeta/Romoko jaietako bertso-jira

**19:00 | Txosna-gunetik abiatuta**

**Bertsolariak:** Imanol Uria eta Jon Maia.

**Abuztuak 11, barikua**

### Gorlizko Balkoirik Balkoi

**20:00 | Eliz plazatik abiatuta**

Daborduko urteroko hitzordua bilakatu da Gorlizko Balkoitik Balkoira bertso-saioa.

**Bertsolariak:** Nerea Ibarzabal eta Etxahun Lekue.

**Abuztuak 12, zapatua**

### Portu Zaharreko jaietako plaza libre saioa

**19:30 | Etxetxu plazan**

Algortako Portu Zaharreko jaietan ere ez dute huts egingo bertsolariek; gainera, saio bi egingo dituzte: plaza librekoa eta Marmitako Egunkoa.

**Bertsolariak:** Unai Mendiburu eta Andoni Egaña.

**Abuztuak 14, domeka**

### Portu Zaharreko jaietako Marmitako Egunko saioa

**18:00 | Etxetxu plazan**

**Bertsolariak:** Peio Lago, Peru Irastorza eta Maite Sarasola.

**Abuztuak 24, eguena**

### Erandioko San Agustin jaiak

**19:00 | Udaletxeko plazan**

ALBEk Erandiora arte zabalduko ditu bere plazak, eta Altxagako San Agustin jaietan egongo dira beste urte batez.

**Bertsolariak:** Inazio Vidal, Alaia Martin, Igor Elorza eta Xabat Gallettebeitia.

**Irailak 10, domeka**

### Hitzaren Dantza 2023

**11:00 | Algortako kaleetan**

Bertsoak, musika herrikoia eta dantza euskararen inguruan biltzen dute egun osoko egitaraua hartzen duen Hitzaren Dantza jaialdian. Beste urte batez, Algortako txoko guztiak bertso, doinuz eta dantzaz beteko dituzte.

**Bertsolaria:** Paule Loizaga, Xabat Illarregi eta Aitor Etxebarriazarraga.

**Irailaren 30era arte**

### XV. Bertso paper lehiaketa

ALBEk antolatzen duen Balendin Enbeita lehiaketarako bertso-sortak irailaren 30era aurkeztu daitezke.






# IBAIZABAL

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

uda

uda



Udan ere irakurriz bizi  
eta gozatu!



# Hirukira olgetan

© GARBINE UBEDA

SOLUZIOAK:



AURREKO  
SOLUZIOAK




**Aldea dago!** Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak; 9 dira guztira.





## Margotu

Eman kolorea lagun talde honi. Izar batzuk ere marraztu itzazu, gaua da-eta.



## Dominoan

Egin itzazu falta diren marrazkiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



# GIDABAIMENA **EUSKARAZ**



**IBONE BLAS BASAÑEZ**

«Betidanik ikasi dudanez euskaraz, gidabaimena ere euskaraz egiteko ideia izan nuen»

**ARANTZA DíEZ PINEDO**

«Lehenengoan atera nuen inolako arazo barik!»

**AGER ETXEBARRIA PEREZ**

«Ez nuen arazorik izan, azterketako galderak ondo idatzita zeuden»



## PRIMERAN ATERAKO DUZU!



**Gidabaimena euskaraz** ateratzen baduzu:

**100 €** ko dirulaguntza jasoko duzu.

Eta gainera, 100 euroko 3 erregai-txartel zozkatuko ditugu.



Zure autoeskolan edo **Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuan**.  
94 466 00 10

[euskara.zerbitzua@getxo.eus](mailto:euskara.zerbitzua@getxo.eus)  
[www.getxo.eus/euskara](http://www.getxo.eus/euskara)

**Erraza da!**



**Getxo**  
*bizi ezazu*



**ALKARBIDE**  
Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Batzuna

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

**EUDEL**  
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



# hirukalagunen txokoa

# Sari ederrak eskura!

Zozketa

## ***Bizirik dirauena, zure esku***

Leire Lekuona getxoztarrak idatzitako eleberri dotore hau zozkagai dugu gure irakurleentzako. Orain gutxi elkarrizketa egin genion egileari, eta orain emaitza zozkatuko dugu.

Zozketan parte hartu gura baduzu, abuztuak 6a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: **Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus** webgunean.



Zozketa

## **Ibaizabalen liburu ederra**

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 4 urtetik gorako umeentzako liburuxka eder hau dugu zuretzako. Irakurri gura duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, abuztuak 6a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: **Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus** webgunean.



Zozketa

## **Magiaz beteriko liburua**

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 10 urtetik gorako neska-mutilentzako liburu eder hau zozkatuko dugu gure irakurleen artean. Halako bat zuretzat izatea gura duzu? Bada, eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, abuztuak 6a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: **Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus** webgunean.



## **Zelan egin HIRUKA lagun?**

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)

**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)

**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke,** Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



# ZOZKETA

# ZOZKETA

# ZOZKETA

# ZOZKETA



**Bidali zure udako argazkiak eta lortu sari itzelak!**  
**Parte hartzeko argazkiak zuk zeuk igo beharko**  
**dituzu lehiaketaren atalera.**  
**Epea irailaren 3ra arte egongo da indarrean.**

**HAINBAT SARI BANATUKO DITUGU!**



**hiruka** prentsa euskaraz,  
pentsa euskaraz

Informazio guztia webgunean  
**[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)**